

Gorka Moreno Márquez

Herritartasuna berdefinitzen: Oinarrizko Errenta

Deustuko
Unibertsitatea

• • • • • • • •

**Giza Eskubideen
Institutua**

Giza Eskubideak

Giza Ezkubideei Buruzko Deustu Koadernoak

Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak

41. zenb.

Herritartasuna berdefinitzen:
Oinarrizko Errenta

Gorka Moreno Márquez

Zuzendaritza Kontseilua:

Jaime Oraá
Xabier Etxeberria
Felipe Gómez
Eduardo Ruiz Vieytes
Trinidad L. Vicente
Joana Abrisketa

Debekatuta dago, legearen arabera, argitalpen hau —diseinua eta irudiak barne— bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzailearen berariazko baimenik gabe.

© Deustuko Unibertsitatearen Argitalpenak
Posta Kutxa 1 - 48080 Bilbao
e-posta: publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-9830-591-3

Enarari

Aurkibidea

Sarrera: Herritartasuna eta Oinarrizko Errentaren inguruko eztabaida	11
1. Kapituloa: Herritartasuna: berdintasuna eta askatasuna	15
1.1. Berdintasuna eta askatasuna eztabaidagai	15
1.2. Askatasuna eta berdintasuna herritartasunaren baitan	21
1.3. Herritartasunaren egituraketa.	30
1.4. Berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna: Ongizate Estatuaren helmuga.	38
2. Kapituloa: Herritartasunaren krisia - Ongizate Estatuaren krisia	41
2.1. Herritartasuna eta Ongizate Estatuaren arteko lotura, enplegua tartean.	41
2.2. Enplegu fordista: ezaugarri nagusiak	42
2.3. Enplegu mota berria: txanponaren beste aldeak	44
2.4. Gizarte bazterketa herritartasun krisiaren isladatzaile	47
2.5. Herritartasun ahula: prekarizazio laborala eta bitala	52
2.6. Ondorioa: Herritartasunaren hausketak eta krisiak	56
3. Kapituloa: Herritartasuna berreraikitzen: Oinarrizko Errenta	59
3.1. Zer da Oinarrizko Errenta? Eta... zer ez da	59
3.2. Oinarrizko Errentaren justifikazio ideologikoa(k)	63
3.3. Oinarrizko Errentaren eredu ezberdinak	64
3.4. Oinarrizko Errentari egindako galdera eta kritika nagusiak	66
3.4.1. Onargarria al da lan egin gabe dirua kobratzea?	67
3.4.2. Jendeak lan merkatuan jarraituko al luke?	67
3.4.3. Aberatsek ere kobratuko dute? Neguriko bizilagunek ere?	68

3.4.4. Oinarrizko Errenta eta lan merkatua	69
3.4.5. Oinarrizko Errenta eta emakumeak	69
3.4.6. Oinarrizko Errenta eta inmigrazia. Sortuko al luke «deia» efektua?	70
3.4.7. Oinarrizko Errenta soilik lurralde garatuentzako proposa- mena al da?	71
3.5. Oinarrizko Errentaren bideragarritasuna	71
3.5.1. Bideragarritasun soziala eta politikoa.	71
3.5.2. Bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa	73
3.6. Oinarrizko Errentaren ideia-aren garapena eta gaur eguna	76
3.7. Ematen al da edo eman al da inoiz Oinarrizko Errenta?	78
Bukatzeko... alternatiben beharra zalantzen garaian: Oinarrizko Errenta	81
Bibliografia	83

Sarrera

Herritartasuna eta Oinarrizko Errentaren inguruko eztabaida

Gaur egun herritartasuna eta Ongizate Estatuaren inguruko eztabaidak pil-pilean daudela erraz esan daiteke. Lehenengoari buruz agian gehiago hitzegiten ari da maila akademiko zein teorikoan; Ongizate Estatuari buruzko eztabaida, aldiz, komunikabide eta iritzi publikoan topa daitekeen kontua ere bada. Argi dago biak elkarloturik daudela eta bien arteko eragina nabaria dela, bai bata zein bestean.

Hau esan ondoren, eta ideiei hauekin jarraituz, esan beharra dago Ongizate Estatuaren muintetako bat gutxieneko material batzuk beharrezkoak direla eta hauek bete behar direla izan da eta gaur egun ere bada. Dinamika hau, alde batetik herritartasunaren eskubide sozialen bidez eman da; eta bestetik, desmerkantilizazioaren bidez. Lehenengo kasuan, eskubide sozial hauek gehienetan enpleguaren bitartez lortu izan dira. Desenpleguan egoteagatik emandako diru-laguntzak, gaisotasun baxak edota pentsioak honen adibide izango lirateke. Baina, gaur egunean enpleguak bizi duen krisia dela eta, gehien bat lan prekarizazioarekin lotu daitekeena, eskubide sozial hauen egikaritzea zalantzan jarri da gizartearen zenbait taldeentzat. Era honetan, gero eta soldata baxuagoak, lan-baldintza kaskarragoak eta eskubide sozial ahulagoak ezaugarri nagusi diren testuinguru batean murgilduta daude herritar asko eta asko. Baina ez hau bakarrik, lehen aipatu bezala, desmerkantilizazioa ere zalantzan dago, lan merkatutik at dauden eskubide sozialen existentzia alegia. Elementu hau beti inplizituki eman den fenomenoia izan da Ongizate Estatu guztietan, maila altuago edo baxuagoan, baina beti; eta horren isla dira adibidez osasuna, hezkuntza, pentsio ez kontributiboak edota gutxieneko diru-sarrerak bezalako neurriak. Momentu hauetan ideiei hauek ere zalantzan agertzen dira askotan eta eskubide

hauetaz gozatzeko enplegu bat izatea baldintzatzen jotzen da zenbait lekuetan. Honen adibiderik argiena EEBB-etan sortu, Erresuma Batuara pasa eta gaur egun Europan ere eragina duen «Workfare» edo «Welfare to work»-en filosofia da. Honen arabera, eskubide sozialetaz gozatzeko enplegu bat behar-beharrezkoa da.

Honek guztia, noski, Ongizate Estatuaren zutabeak diren herritartasun eskubide sozialak eta desmerkantilizazioa kolokan jarri eta krisira eramaten ditu ezinbestean. Horrela izanik, Ongizate Estatuaren erroka izugarri garrantzitsu baten aurrean topatzen da: Edo desmerkantilizazioa bermatu herritartasun eskubideen bidez ala remerkantilizaziora jo, beste garai batzuetan bezala; gizartearen ongizatea merkatu pribatuaren esku utziz. Hein handi batean, hauxe da hain zuzen ere momentu hauetan jokatzeko ari dena, beraz ez da txantxetako kontua. Gaur egungo joerak ikusita, ematen du bigarren erantzuna dela aukeratzen ari dena, orokorrean merkantilizaziorantz zuzendutako neurriak egikaritzen ari direlarik Ongizate Estatuaren krisiari aurre egiteko. Honen adibide da, lehen aipatu bezala, Workfare-ak gero eta gehiago politika sozialetan duen eragina.

Honen aurrean ba ote alternatibarik? Azken garai hauetan proposamen gehienak edo pentsamendu bakarrak ezarritako balizko logika ekonomikoaren mugen barruan kokatu dira; edota atzera begiratzen duten erantzunak izan dira, etorkizun gutxiak eta errealdismo are gutxiagorekin. Beraz, eztabaida teorikoan suziriak botatzeko arrazoi askorik ez dago. Hala ere, azken urte hauetan arlo hau astintzen ari duen ideia bat gero eta entzunagoa da zenbait eremuetan. Ideia honek etorkizunera begiratzen du, gaur egungo egiturazko aldaketekin bat egiten du eta gainera herritartasuna bereraikitzeke tresna teoriko zein praktikoak eskeintzen ditu. Eta ideia hau Oinarizko Errentarena¹ (OE hemendik aurrera) da, ingelesez Basic Income eta gaztelaniaz Renta Básica bezala ezagutzen dena. Honen ardatz nagusia herritar guztien duintasuna eta behar materialak gauzatu behar direla eta horretarako guztiei errenta edo soldata bat bermatu behar zaiela da; era azkar, potolo eta akaso probokatzailerik batean esanda. Eta ideia honen inguruan sakontzea eta hausnartzea izango da lan honen helburuetako bat, hain zuzen ere.

Horrela bada, lehenengo kapituloan herritartasunaren kontzeptua landuko da, modernitatearen bihotza dela defendatuko delarik. Bide honetan, berdintasuna, askatasuna eta hauen lotura nola gauzatzen den

¹ EAE-n oinarizko errenta izeneko errenta minimoa edota gutxieneko diru-sarrera ematen da. Hemen landuko den Oinarizko Errenta eta EAE-n ematen dena bi kontzeptu ezberdin dira; lan honetan ikusiko den bezala. Beraz oso komenigarria da biak hasiera batetik ondo bereiztea eta hauen arteko elkar nahastea ekiditea.

landu egingo da; gero jada herritartasuna bera aztertzeko, Marshall-en ekarpenei arreta berezia emango zaielarik. Bigarren kapituloan, eta lehenengoa eta hirugarrenaren lotura funtzioa jokatzuz, gaur egun herritartasun kontzeptuak pairatzen duen krisia aztergai izango da. Horretarako, nahitanahiez, Ongizate Estatuaren krisia ere ikertuko da eta honetan enplegu fordista eta gaur bizi den lan prekarizazioa azpimarratuko dira. Ondoren, gizarte bazterketa eta zaurigarritasunek —vulnerabilidad social— herritartasun kontzeptua nola urratzen duten apuntatuko da. Azkeneko kapituloan Oinarrizko Errenta izango da protagonistarik nagusiena. Bertan kontzeptua, ematen diren kritika eta zalantza garrantzitsuenak eta etorkizunera begira ideiei honek dituen aukerak landu egingo dira, Oinarrizko Errentak herritartasuna berrikusteko dituen ahalmen eta aukerak azpimarratuko direlarik.

Aurreko lerroetan ikusitako testuinguruaren arabera gero eta gehiago eta beharrezkoagoa da gai hauen inguruko eztabaida eta dibulgazioa bultzatzea. Maila apal batean beti ere, lan honek hori lortuko balu helburu nagusiena beteta egongo litzateke. Ezin ahaztu bertan jorrazten diren ideiei askok zuzenean modernitatearen oinarriekin bat egiten dutela, eta beraz, ez direla bigarren mailakoak hemen aurkezten eta planteatzen diren kontzeptu eta zalantzak. Oinarrizko Errentari buruz, esaterako, gauza asko daude esateke eta erantzuteke. Hauek elkarrizketa lasaiaren bidez egituratu beharko dira. Gainera, OE bezalako ideiak aktibatzea gaur egun ia behar morala bilakatzen dira, inoiz baino esanahi gehiago dute eta honengatik, besteak beste, lan hau egitea.

Azkenik, eskerrak eman nahi nizkioke Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Institutoari, horrelako lan bat idazteko aukera eman didalako, erraztasunak izugarriak izan direlako eta gai hauek zabaldu eta eztabaidatzeko erakutsi duten eta erakusten duten interesagatik. Bukatzeko, lan hau Enarari eskaini nahiko nioke, hainbeste aguantatzeagatik eta hainbeste laguntzeagatik; izan ere, eta pelikularen izenburuak esaten duen bezala, berak ondo baitaki «azkeneko uda honetan zer egin dudana»... Hortaz, hona hemen ekarpen hau. ON EGIN!!

1. kapituloa

Herritartasuna: berdintasuna eta askatasuna

1.1. Berdintasuna eta askatasuna eztabaidagai

Gizarte modernoa bi ardatz nagusietan oinarritzen da, hauek berdintasuna eta askatasuna dira. Zentzu honetan, bide honen hasiera sinbolikoa Frantses Iraultzan koka daiteke, 1789. urteko Herritar eta Gizonen Eskubide Aldarrikapenean hain zuzen ere. Bertan gizarte modernoa egituratzen duten bi kontzeptu hauek jada azaltzen dira. Baina agian, bi kontzeptuen azterketarekin hasi baino lehen, interesgarria izan daiteke berdintasuna eta askatasunaren inguruko ikuspegi ezberdinak aurkeztea. Horretarako, ezinbestekoa da bi ideien hauen loturan justizia sozialaren teoriak izan duen garrantzia kontutan hartzea, edo beste era batera esanda: «gizarte bateko kideen eskubide eta betebeharrak ezberdinen definizioa eta banaketa arautzen dituen printzipioen multzoa» (Van Parijs, 2002: 19). Horrela bada, justizia sozialaren teorian tradizionalki ildo marxista, utilitarista eta liberal-igualitarioa izan dira nagusitu izan direnak. Gaur egun, aldiz, azken teoria da ia erabat gailendu egin dena, beste biren kaltetarako. Zehaztapen hauek eman ondoren, hemendik aurrera justizia sozialaren inguruko eztabaida nagusienak azalduko dira.

xix. mende erdialderarte joera utilitaristak izan du lehentasuna eztabaida honetan, erabilpenen —utilidad— maximazioa aldarrikatu duelarik gizartearen barruan, eta hau norbanakoaren interesen metaketaren bidez lortzen da. Horrela izanik, interes orokorra interes partikularren gainetik kokatuko litzateke, garrantzitsuena gehikuntza honetan lortzen den azken emaitza baita. Hau defendaturik, utilitarismoarentzat gizartearentzat ahal den ongizaterik haundiena lortu behar da, gehiengoaren ongizatea alegia. Teoria honi zenbait kritika egin zaiz-

kio, hauen artean, laburki baldin bada ere, azpimarragarrienak dira gizabanako bakoitzak interes ezberdinak izaten dituela, gizarte barruko berbanaketa ez duela kontutan hartzen eta norbanakoaren eskubideak zanpatzea zilegi ikusten duela baldin eta horrekin gehiengoaren ongizatea hobetzen bada (Van Parijs, 1993).

Horrela bada, eta utilitarismoak bakarrik metatutako ongizatea kontutan hartzen duenez, komunitate baten barruan sortu daitezkeen ezberdintasunei muzin egiten die. Zentzu honetan, oso deigarria da, esaterako, Estatu baten aberastasuna neurtzeko erabiltzen den indizea, errenta per kapita, alegia. Datu hau barne produktu gordina zati estatu horren biztanle kopuruaren bidez lortzen da. Honen bidez, egia da, Estatu bateko aberastasuna jakin daitekela, baina ez, inondik inora, Estatu horren barruan aberastasun hori nola banatzen den. Era honetan, ezinezkoa da jakitea aberastasun handiena bakan batzuen esku gelditzen den; edota Estatu horretan berdintasunerako joera duen berbanaketa egiten den ala ez. Utilitarismoarekin, antzeko gertaera ematen da, komunitate bateko ongizate metatua zein den jakin daiteke, baina ez norbanakoaren interesak nola berbanatzen diren barruan.

Muga hauek direla eta, teoria igualitaristek, filosofia politikoa oinarritzat hartuta, utilitarismoa gainditzen saiatzen dira. Teoria hauen ideei nagusiena eta amankomuna gizarteak bere kideei oinarritzko beharrak bermatu behar dizkiola da (Baker, 1992: 106). Halaber, berdintasuna ezin daiteke soilik eman eskubide zibil eta politikoen esparruan; berdintasun soziala ere funtsezko elementua da doktrina eta ikuspuntu honentzat. Zentzu honetan, legearekiko berdintasuna edota aukera berdintasuna ez da nahikoa. Igualitaristentzat, maila formal hori gainditu behar da eta berdintasunari edukin materialak eman behar zaizkio (Bobbio, 1993: 83), hau Estatuak merkatuan egindako eskuhartze eta erregulazioaren bidez bermatzen da. Era honetan, gizartearen errekurtsoen berbanaketa eztabaidagai nagusiena bilakatzen da igualitaristentzat (Callinicos, 2000: 109). Argi gelditzen da, beraz, liberal-igualitaristen erronka berdintasuna eta askatasuna uztartzea dela. Eta eztabaida guzti honen abiapuntua, duda izpirik gabe, John Rawls-en justiziaren teorian (1979) kokatzen da, bertan gaur egungo etika ekonomiko eta sozialari buruzko eztabaidaren oinarriak zehazten direlarik.

Rawls-en asmoa utilitarismoaren hutsuneak betetzea eta teoria hau gainditzea da. Egile honek gizartearen ikuspegi kontraktuala du, hitzarmenaren bidez justiziaren oinarriak zehaztu beharko liratekeelarik. Eta hitzarmen honek «ezjakintasunaren beloan» du jatorrizko egoera. Honen arabera, inork ez daki jatorrian zein den bere kokalekua gizartearen barruan. Era honetan, ondasun primarioen inguruko ikuspuntu guztiak kontutan hartu behar dira. Ondasun primario hauek maila sozialean

(aberastasuna, eskubideak...) edo naturalean (trebetasunak, osasuna, etab.) koka daitezke eta pertsona bakoitzak bere bizitza antolatzeko behar dituen ezinbesteko baliabideak dira.

Baina jatorrizko egoerara bueltatuz, inork ez daki zein izango den bere ondasun primarioen «lotea» edo banaketa, horregatik banaketa honetarako printzipio batzuk ezarri behar dira, eta hauek dira hain zuzen ere hain famatuak bihurtu diren Rawls-en justizia printzipioak: askatasunaren printzipioa eta ezberdintasunaren printzipioa (Rawls, 1979):

1. Pertsona orok ahal den eta oinarrizko askatasun gehien izateko eskubidea du, baldin eta honek ez badu besteen eskubide hau zalantzan jartzen (askatasun berdina izateko printzipioa).
2. Desberdintasun sozio-ekonomikoak soilik zilegi dira baldin eta:
 - a) gizartean okerren daudenen egoera hobetzeko balio badute (ezberdintasunaren printzipioa) eta b) eta denek kokaleku horiek eskuratzeko aukera baldin badute (aukera berdintasunaren printzipioa).

Argi ikusi daitekeenez, Rawls-ek printzipio hauen bidez bizitza egituratzeko proiektu jakin baten alde egiten du. Horrela bada, pertsona bakoitzak berari egokiagoa zaion bizitza proiektua garatzeko aukera izan behar du eta Estatuak helburu hau bideratzeko instituzioak garatu behar ditu. Era berean, printzipio hauen bidez utilitarismoa alde batera uzteko saiakera egiten da: utilitarismoak ongizatearen metaketa hutsa eman behar dela defendatzen duen bitartean honen berbanaketa kontutan hartu gabe eta aberatsen egoera hobetzen bada pobreen kalterako zilegi izanik, baldin eta honek interes orokorraren alde egiten badu; igualitarismoak, eta zehazki Rawls-ek, ideia hauen kontra egingo du. Bere ustez, lehentasuna ez da ongizatearen gehikuntza; alde batetik, gizarte barruan ematen den berbanaketa kontutan hartu behar da, eta bestetik, norbanakoaren interesak bermatu behar dira beste interes mota batzuen aurrean.

Rawls-en teoria honek kritika anitz jaso ditu azken urteetan. Alde batetik, zenbait egileek, Nozick buru, igualitarismoak askatasun eta autonomiaren kontra egiten duela azpimarratu dute. Beste batzuk, aldiz, berdintasunaren aurrean Rawls-en teoriak dituen hutsuneak landu egin dituzte. Eta azkenik, hirugarren talde batean, egile honen teoria abiapuntutzat hartuta gaurkotzea eta sendotzea saiatu diren egileak topa daitezke, hauen artean Dworkin, Sen edo Cohen topa daitezke (Gargarella, 1999).

Ondorengo lerroetan ikuspegi libertarianoak Rawls-i egindako kritikak aztertuko dira, horretarako Nozick-ek egindako ekarpenak hartuko dira hizpide. Egile honentzat soilik askatasun negatibo —bizitza eta ja-

begoa nagusiki— da bermatu behar dena eta Estatuak izan behar da zeregin hau bere esku hartu behar duena. Estatuak beste eginkizunetan partehartzen badu, askatasun positiboetan esaterako, norbanakoaren jabego eskubidearen kontra egingo luke eta hori onartezina da libertarioentzat. Era berean, Nozick-ek utilitarismoaren kontra egiten du norbanakoaren askatasuna mugatu egiten duelako interes kolektiboaren pean. Guzti hau dela eta, gutxieneko Estatu baten alde egiten dute berdintasun edota justizia sozialaren alorretan (Nozick, 1988).

Hala ere, ikerketa honetan teoria libertarioari garrantzi handia ez zaionez emango, hemendik aurrera teoria igualitarioaren barruan Rawls-i egindako kritikak zeintzuk izan diren landuko dira. Dworkin-en ustez, adibidez, Rawls-en teoriak hutsuneak erakusten ditu norbanakoaren ardurapean gelditzen diren aukera eta egoeren garrantzia azaltzerako momentuan. Horrela izanik, egile honen ustez teoria «rawlsianoak» norbanakoari berea ez diren zenbait ardura leporatzen dio eta, aldiz, bere ardura diren zenbait ahaztu egiten ditu. Edo beste hitzekin esanda, «ez ditu pertsona bakoitzaren dohaiak kontutan hartzen, eta ez ditu kontutan hartzen bakoitzaren etorkizuneko nahiak» (Gargarella, 1999: 72).

Ezin da alde batera utzi ere, Dworkin-entzat, eta Rawls-en teoria abiapuntutzat hartuz, berdintasuna dela gizarte demokratikoen bertuterik garrantzitsuena (Dworkin, 2003), beraz teoria igualitaria hobetzen saiatzen da, horretarako enkantearen metafora erabiliko du (Dworkin, 1993). Hasierako enkante batean gizartearen ondasun guztiak jartzen dira, pertsona orok aukera berdinak izango dituelarik. Alde batetik, errekurtso pertsonalak daude (trebetasun fisiko edo mentala, osasuna, trebetasuna...); eta bestetik, errekurtso ez pertsonalak (lurrak, jabegoak, etab.). Bakarrik errekurtso ez pertsonalek parte hartuko dute enkantean, eta azken hau bukatu egingo da pertsona bakoitza ados dagoenean bere «lotearekin» eta besteena nahi ez duenean. Honen bidez, Dworkin-en ustez, «inbidiaren test-a» gaindituta izango litzateke. Beranduago, norbanakoari baliabide gehiago eskeiniko dakioke errekurtso pertsonalak parekatzeko eta bakoitzak bere bizitza proiektua gauzatu ahal izateko. Laburbilduz, esan daiteke Dworkin-entzat Rawls-en teoriak ez duela gehiegi sakontzen norbanakoaren zio etikoetan eta errekurtsoen garrantzian, Rawls-ek soilik ondasun publikoei arreta jartzen baitie.

Amartya Sen Nobel sariak Rawls-en ideia hartzen ditu ere oinarri bezala, baina bere ustez ondasun primarioen nolabaiteko mitifikazioa ematen da honetan; Rawls-ek gehiegizko garrantzia ematen dio bitartekoei baina ahaztu egiten du norbanako bakoitzak erabilpen eta balio ezberdinak eman dakizkiola ondasun primarioei. Zentzu honetan, ondasun primarioen berdintasuna (Rawls) zein errekurtsoen berdintasuna (Dworkin) ez dira nahiko planteamendu igualitario bat eraikitzeko, ez

baitute eragin berdina sortarazten pertsona bakoitzean. Dworkin-en ikuspegiari buruz, adibidez, Sen-ek aipatzen du ez diola garrantzirik ematen gizabanakoen aukeraketa eta lehentasunei. Sen-entzat arreta berezia jarri behar zaio errekurtsoen jabetzaren ondorengo momentuari eta hauen erabilpenaren aurrekoari, beraz jabetza eta erabilpenaren arteko epeari. Benetan garrantzitsuena, pertsonak errekurtsio hauek askatasunetan bihurtzeko gaitasuna izango da.

Eta honetan oinarriko tesi bat dago; Sen-entzat gizakiek arlo ekonomikoan izaten duten jarrera berekoiek giza ekintzen alde etikoak ahaztu egiten ditu; eta historikoki ongizatearen ekonomiaren teoriak faktore hauek mespretxatu egin ditu. Horrela izanik, arrazionalitate ekonomikoaz gain, gizabanakoaren lehentasunak azaltzeko beste hainbat elementu daude, Sen-ek esaten duen bezala «ekonomia modernoaren oinarria txirotuta gelditu da ekonomia eta etikaren arteko tarte delata eta» (Sen, 1987: 25). Ikuspegi honekin jarraituz, egile honentzat arrazionalitatea soilik «norbanakoaren interesarekin lotu egin da, baina arrazionala al da soilik portaera arrazionala?» (Sen, 1987: 32). Bizitzako gertaerek etengabe erakusten dute arrazionalitate honetaz gain —eta baztertu ezin daitekeena— beste portaera kode batzuk ere badaudela eta bestea bezain arrazionalak izan daitezkeela. Era berean, ikuspegi mugatu honek ahaztu egiten du etikak paper garrantzitsua jokatzen duela giza portaera guztietan. Adibideak edonon eta edonoz topa daitezke. Halaber, berekoitasunak dena azaltzen ez duen bezala, erabateko eskuzabaltasunak ere ez da nahikoa. Eta honetatik abiatuz, Sen-ek ongizate ekonomiaren teoria berria egiten saiatzen da, bi elementu hauek uztarturik. Horretarako, titularitate eta ahalmenen kontzeptuak erabiltzen ditu.

Titularitateak pertsonen eta kontsumo ondasunen arteko erlazioa izango ziren, hauen bidez legitimatzen delarik ondasun hauekiko kontrola eta jabetza. Beraz, titularitateek, bide legalak jarraiki, ondasun hauetaz disfrutatzeko ahalmena eskaintzen dute (Sen, 1995); titularitateen oinarria eskubideak direlarik. Ondorioz, titularitateak norbanakoak dituen herritartasun eskubideak izango dira, eta hauen zenbatekoa, kobertura, hedaketa edo mugapena faktore instituzional zein kulturalen esku egongo da. Idei hauek direla eta, Sen-ek zenbait kritika jaso zituen hasiera batean titularitateen kontzeptuak ez zuelako zehazten pertsonen oinarriko beharrak ezta mundu osoan era berdina eta amankomun batean garatu daitezkeenik ala ez. Hutsune hauek betetzeko ahalmenen kontzeptua landu eta garatuko du.

Bizi kalitatea ahalmenen arabera neurtu behar da (Sen, 1995). Horrela bada, ahalmenen berdintasuna da lortu behar dena, eta hauen artean janariak, hezkuntza, osasuna edota parte hartze politikoa azpimarratu

daitezke, besteak beste. Adibide honek erakusten du ahalmenen barruan oinarritzko beharrak sartzen direla, baina ez hauek bakarrik. Ahalmenen kontzeptuan beste hainbat esparru ere kontutan hartzen dira eta gero eta ahalmen gehiago izan, gero eta ongizate altuagoa lortuko da. Eta beraz, txirotasuna oinarritzko ahalmen hauen gabezia izango litzateke (Sen, 2000).

Ikuspegi honentzat ondasunak erosi edo errekurtsuak eduki baino garrantzitsuagoa, gauzak egiteko ahalmena edo giza ahalmenak garatzea bezalako elementuak kokatzen dira. Logikoki, errekurtsuen hazkunde batek ez dakar automatikoki ongizatearen hobekuntzarik. Laburbilduz, ahalmenek norbanakoari berak nahi duen bizitza proiektua egiteko aukera ematen diote; era honetan, garapena «norbanakoak disfrutatzen dituen askatasunen zabalketa erreala izango litzateke» (Sen, 2000: 19). Eta ahalmen hauen barruan ahalmen materialak eta askatasuna bermatzen eta sustatzen duten ahalmenak topa daitezke. Lehenengo taldean gizarte zerbitzuak edota janaria bezalakoak kokatzen dira; eta bigarrenean «ikutuezinagoak» diren beste batzuk, adierazpen askatasuna edota demokrazia bezalakoak. Zentzu honetan, Sen-en helburua bi elementu hauek uztartzea da, eta horretarako garrantzitsuena askatasuna lortzeko eta bakoitzak bere bizitza proiektua izateko beharrezkoak diren aukerak gauzatzea da. Beste era batera esanda, Sen-en ustez ongizatea berdintasuna eta askatasuna elkar harremanetan jarriz lortzen da. Azken hau oinarritzko ideia da bere teorian eta beste egile baten teoriarekin harremanetan jartzeko ere balio du, hots, Philippe Van Parijs-ena.

Egile honentzat gizarte aske bat guztion askatasun errealean oinarritzen da, eta azken hau erabat lotuta agertzen da «aukera» ideiarekin. Hau azaltzeko Van Parijs-ek zenbait adibide jartzen ditu: «dirurik ez badut, ez naiz benetan kruzero bat egiteko askea; jatekorik ez badut eta lan txar bat onartzera behartuta banago, ez naiz benetan lan hori ez onartzeko askea» (Van Parijs, 1996: 42). Horrela izanik, gizarte aske bat izango litzateke: «eskubide egitura zehazturik duena (segurtasuna); eta egitura honetan bakoitza bere buruaren jabe denean (burujabetasuna); egitura honetan bakoitzak nahi duena egiteko aukerarik handiena duenean (aukeraren leximin)» (Van Parijs, 1996: 45). Beraz, egile honentzat pertsona orok nahi duen bizitza proiektua gauzatzeko aukera izan behar du eta horretarako gutxieneko behar material batzuk bermatu eta asetu behar dira: «askatasun erreala baldintzarik gabe bakoitzari bizitza maila bermatzea da» (Van Parijs, 1993: 153). Definizio honi jarraiki askatasun erreala gauzatzeko baldintzarik gabeko Oinarritzko Errenta ezarri beharko zen, aipatutako hiru printzipioak babesten baititu (segurtasuna, burujabetasuna eta aukeraren leximin-a).

Zenbait igualitaristek, berdintasunari emandako gehiegizko garrantzia dela eta, batzuetan askatasuna alde batera utzi dute. Honen harira, esan beharra dago Amartya Sen edo Philippe Van Parijs-en ekarpenak hutsune hauek betetzen saiatu direla, askatasunari hestuki loturiko berdintasuna defendatzen dutelarik. Askatasuna gutxiesten duten ikuspegien aurrean, Sen-ek adibidez, bakoitzaren bizitza proiektua aukeratzeko askatasunaren garrantzia azpimarratu du. Aukeraketaren berdintasunaren teoria honen nagusitasuna beste teorien aurrean —ondasunen berdintasuna, errekurtsoen berdintasuna— defendatzen duten beste egile batzuk topa daitezke gaur egun ere (Le Grand, 1993).

Baina ez dira hauek bakarrik berdintasuna eta askatasuna uztartzeko beharra defendatzen duten egile bakarrak. Ralph Dahrendorf-ek, ikuspegi liberal klasikoetatik gertuago akaso, aukera bitalen kontzeptua defendatzen du. Honen arabera, «garapen indibidualerako, ahalmenen egikaritzarako eta nahiak eta esperantzak gauzatzeko aukerak izango lirateke, aukera hauek baldintza sozialen menpe egongo liratekeelarik» (Dahrendorf, 1983: 52). Zentzu honetan, argi utzi behar da aukera bitalak ez direla askatasun indibidualaren esparrura mugatzen, benetazko aukera ahalmena izan behar dira, eta horretarako testuinguru sozialak bere biziko garrantzia du. Ez da nahikoa esatea pertsona bat aske dela igeltseroa edo medikua izateko edota ospital batetara joateko askatasuna duela. Gizarteak aukera hauek benetazkoak izan daitezen bermatu behar du. Dahrendorf-ek erabilitako kontzeptuei jarraiki, aukera bitalak aukera eta lotura kontzeptuen arteko tentsioan kokatzen dira. Kontzeptu hauek izaera soziala dute eta beraz funtzio sozialen parte, «eta ez gizakien borondate edo fantasiaren objektu arbitrarioak» (Dahrendorf, 1983: 56). Elementu hauen konbinaketan datza aukera bitalen hazkundea edota mugaketa. Beraz, aukera bitalak benetan bideragarriak izan behar dira, ezin dira mugatu hipotesien mailara. Honekin lotuta aukera bitalak herritartasunaren edukina osatuko lukete.

1.2. Askatasuna eta berdintasuna herritartasunaren baitan

Aurrekoan ikusi den bezala, gizarte modernoan ardatzak diren aspektu hauek hausnarketa eta gogoetarako ateak irekita dituzte eta gaur egun ere pil-pilean daude hauen inguruko eztabaida asko. Askatasuna eta berdintasunaren arteko lotura, tradizionalki gai korapilotsua izan da eta egile asko eta asko izan dira bi hauen arteko uztartekarik ezinezkoa dela defendatu egin dutenak, kontzeptu batek bestea ahultzen duelako aldarrikatu dutelako.

Kontraesan honetan oinarritutako ikuspegi politikoak liberalismo arradikalean, alde batetik, eta sozialismo erreala deituriko planteamen-
duan, bestetik, azaldu egin dira azken mende hauetan zehar. Bi teoria
hauek izandako bilakaera aztertutik erratzeko arrisku gutxiarekin esan
daiteke bai batak zein besteak porrot egin dutela, eta beraz askatasuna
edota berdintasun soilean oinarritutako bideek kale egin dutela. Libera-
lismo klasikoari dagokionez, argi gelditu zen askatasunean —merkatu
askatasuna gehien bat— oinarritutako sistemak gero eta handiagoak
egiten zituela gizarte barruko ezberdintasunak eta hauek sistema kapi-
talista bera krisira eramaten zutela; ezbehar ekonomikoengatik —29.
urteko «Crack-a»— edota indar iraultzaileen garapenarengatik. Biga-
rren kasuan, eskubide zibil eta politikoen urritasunak sistema sozialistak
ito egin zituelako, besteak beste. Beraz, eta lehen esan bezala, ez du
ematen bi tipo ideal hauek arrakastatsuak izan direnik historian zehar.

Baina era berean nahiko hedatuta dago bi kontzeptuen arteko
«amodio-gorroto» harreman hau mantendu behar dela eta bata bestea
behar duela bere garapen osorako. Ikuspegi dialektiko honetan koka-
tzen da adibidez Etienne Balibar. Egile honentzat aipatutako tentsio hau
jada agerian geratzen da Herritar eta Gizonen Eskubide Aldarrikape-
nean. Gizonaren eskubideak unibertsalak dira, ukaezinak eta aldarrika-
tzen dituen erakundea baino haratago existitzen dira. Beraz, oinarritzko
eskubideak dira, eta askatasun negatiboa eta eskubide zibilak gelditzen
dira hauen barruan. Herritarraren eskubideen kasuan, aldiz, erakunde
batek bermatu behar ditu, eta askatasun positiboak eta eskubide so-
zialak izango lirateke kasu honetan. Balibar-entzat, testu horretan bi
kontzeptu hauek batera agertzea aurrera pauso garrantzitsua izan zen,
honen bidez askatasuna eta berdintasuna —eta alderantziz— loturik
gelditzen zirelako. Lotura hau erakusteko, Balibar-k «egaliberté» hitza
darabil (Balibar, 1992), uztarketa hau adierazten duen metafora, hain
zuzen ere. Ikusi daitekeenez, modernitatearen hastapenetatik jada as-
katasuna eta berdintasunaren arteko lotura gauzatzen da, eta hasieratik
ere, bien arteko lotura herritartasunaren bidez emango da (citoyenneté-
citizenship-ciudadanía).

Bi kontzeptuen arteko tentsioa kasu askotan askatasun negatibo
eta positiboaren bereizketaren bidez bideratzen saiatu izan da. Askata-
sun negatiboak askatasun pertsonalak hirugarren pertsonen interfe-
rentzien aurrean babesten dituztenak dira. Maila honetan kokatzen
dira eskubide formalak: jabego eskubidea, adierazpen askatasuna edo-
ta ordezkari politikoak izateko eskubidea. Positiboek, aldiz, eta Nor-
berto Bobbio-ren erizpideei jarraituz, «norbanakoari bere bizitza proie-
ktua aukeratzeko eta hirugarren pertsonen eraginaren aurrean erabaki
autonomoak hartzeko ahalmenak eskeiniko lituzkete» (Bobbio, 1993),

era berean, edukin material bat izan behar dute. Kasu honetan arlo sozialean kokatzen diren eskubideak aipatu daitezke: lan arloa, osasuna, hezkuntza, etab. Berlin-en hitzetan askatasun positiboa «bakoitza bere buruaren jabe izatean oinarritzen den askatasuna izango litzateke» eta negatiboa «norbanakoak besteen eragina gabe erabakiak hartzeko gaitasuna» (Berlin, 2001: 61).

Bi esparru hauek beti ere era osagarri eta zatiezina bezala ulertu behar dira. Horrela, eskubide negatiboaz disfrutatzeko minimo material batzuk behar dira, eta alderantziz. Honi lotuta, oso interesgarria da Abramovich eta Curtis-ek defendatzen duten ikuspegia. Egile hauentzat oinarrizko eskubideen artean ez dago egiturazko ezberdintasunik. Zentzu honetan, eskubide zibil eta politiko —ez dute edukin materialik behar eta besteen interferentziak ekiditeko balio dute— eta sozialen arteko bereizketa faltsua da. Hauen ustez, eskubide batzuk zein besteak aipatutako bi baldintza hauek behar dituzte —edukin materiala eta besteen interferentziarik ez—. Horregatik, hain zuzen ere, bai eskubide mota batzuk zein besteek indar bera izan behar dute, eta epaitegiek horrela ulertu behar dute, eta ez kasu askotan gertatzen den bezala: lehenengo motako eskubideei babes judizial oso handia eman eta sozialei ahulagoa. Hau guztia argudiatzeko Abramovich eta Curtis-ek jurisprudentziako adibide dezente aipatzen dituzte bere lanean (Abramovich eta Curtis, 2002).

Herritartasun kontzeptua erizpidetzat hartuz, eskubide zibil eta politikoak askatasun negatiboetan koka daitezke, eta sozialak positiboetan. Beraz, honekin bukatzen hasteko, esan daiteke berdintasuna eta askatasuna herritartasunaren bidez gauzatu egin direla azken mende hauetan. Ikusi daitekeenez kontzeptu guztiz garrantzitsua bilakatu egin dena modernitatearen zehar. Eta guzti honi gehitu behar zaio herritartasunaren garapena —gutxienez XIX. Mende bukaeratik aurrera— Ongizate Estatuaren bidez ahalbidetu egin dela, honen bidez uztartu direlarik askatasuna eta berdintasuna, eta baita ere eskubide negatiboak eta positiboak. Horrela bada, Ongizate Estatuaren bidez ezberdintasunak sortzen eta pertsonen aukerak murrizten dituen sistema baten ondorioak baretzeko jaiotzen da, berdintasuna bermatzeko, alegia. Hein handi batean aipatutako kontraesanak eta sistema idealak —liberalismo klasikoa versus sozialismo erreala— gainditzen ditu Europa Mendebaldeko lurralde gehienetan.

Herritartasunaren kontzeptua «gizartearen kideak barneratzen dituen antolaketa politikoarekiko —Politeia— pertenezia bezala» (Moreno, 2003: 109) ulertu daiteke. Polis grekoan edota aintzinako Erroman topa badaiteke ere (Schnapper, 2001), esanahi modernoan Frantziar Iraultzan jaiotzen da pertsonen berdintasuna defendatzen duelarik nobleen

pribilegioen aurrean (Heather, 1999). Era berean, eta gaur egun ulertzen den moduan, T.H. Marshall-en ekarpenekin erabat lotuta dago herritartasuna. Izan ere, egile hau, lehenengo aldiz, eskubide zibil, politiko eta sozialak uztartuko ditu, herritartasun modernoa ulertzeko zatiezinak eta beharrezkoak diren parteak bezala. Definizioei dago-kienez, Balibar-entzat herritartasuna «politika demokratikoen eremu instituzionala eta norbanakoa eta kolektiboaren interesak gauzatzeko gunea da» (Balibar, 2003: 184) eta komunitate politiko jakin batean eskubide osoko kideei —herritarrei— ematen zaien statusa izango litzateke. Edota beste hitzekin esanda herritarra komunitate horretako kide bezala tratatzeko eskubidea duena da. Herritartasun statusak eskubideak dakarzki bere baitan, herritarrei dagozkionak, eta beraz ez da konpasio edo diskrezionalitatean oinarritzen. Ignatieff-ek ongi azaltzen duen bezala (herritartasuna) «askatasunaren historia da eta ez konpasioarena» (Ignatieff, 1991: 35). Definizio ezberdin hauek argi erakusten dute modernitatearen zehar herritartasunak izandako garrantzia, sistema politikoaren egituratzaile eta gizarte hitzarmenaren oinarri bezala. Beraz, xx. mendea ulertzeko ezibestekoa da kontzeptu hau kontutan hartzea (Roche, 1992).

Definizioetan aipatu izan da komunitate politikoa tradizionalki Estatu-nazioak izan direla, eta epe ertain eta luzean ere ematen du haxe bera izango dela gune nagusiena herritartasunaren egikaritzan, are gehiago, ikusirik zeintzuk diren gaur egun Europar Batasunak azaltzen dituen mugak eta arazoak. Hau esan ondoren, aipatu behar da herritartasunak gizartea eta Estatuaren arteko loturak ahalbidetu dituela.

Kontzeptua liberalismo klasikoa krisi larrian dagoen momentu batean jaiotzen da: 2. Guda Mundialaren bukaeran, eta garai honetan ideei liberalei egindako kritikak, bai ikuspegi faxistetatik zein komunistetatik, gogorrak izan ziren. Era berean, maila sozialean —gehien bat lan arloan— lehen arautegiak sortzen hasten dira, eta praktika hauek ez dira ondo taxutzen teoria liberalak defendatutakoarekin. Guzti hau dela eta, liberalismo tradizionalak defendatzen dituen eskubide negatiboek zailtasun asko topatzen dituzte eraikitzen ari den errealitate sozial berria azaldu ahal izateko eta eskubide zibil, politiko eta sozialen arteko kontraesanak baretzeko. Plant-en hitzak jarraiki, liberalismoak oso ikuspegi mugatzailea eta sinplista izango du (Plant, 1992).

Testuinguru berri honek legitimazio normatibo berria behar du eskubide sozialen egikaritzaren teoria politikoan barneratu ahal izateko. Eta behar teoriko honengatik ezaguna da gaur egun T. H. Marshall, hain zuzen ere. Egile honek arlo sozialaren garrantzia azpimarratzen du norbanakoa —herritarra— eta Estatuaren —Ongizate Estatu— arteko harremana ulertzeko. Eta Therborn-ek esaten duen bezala, arlo sozialaren

aipamen hau herritartasunean barneratzea Europaren modernitatearen bereizgarria da (Therborn, 1995:89).

Marshall-ek ideei hauek 1949. urtean zehar garatuko ditu Cambridge-ko Unibertsitatean emandako zenbait hitzaldietan (Paramio, 1998). Hauetan, Marshall-ek kontzeptuaren bilakaera historikoa zehazten du hiru fase ezberdinetan: zibila, politikoa eta soziala (Marshall, 1998: 22). XVIII. mendea eskubide zibilei dagokie, XIX.a eskubide politikoei eta XX.a sozialei (Marshall, 1998: 31).

Herritartasunaren elementu zibila norbanakoaren eskubideetaz osatzen da: sinismen askatasuna, adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna, etab. Epe hau XVIII. mende bukaeran hasiko zen eta XIX. mendean zehar gauzatuko zen. Kronologia honi lotuta, esan beharra dago, garapena ez dela zuzena eta etengabekoa. Ziklo edota lekuaren arabera, aurrerakuntzak eta atzera pausoak ematen dira, garai honetan emandako erreforma eta kontraerreforma liberal gehienek ongi azaltzen dutenez.

Alde politikoa politikan parte hartzeko eskubidean oinarritzen da gehien bat, eta hau nagusiki hauteskunderen bidezko parte hartzearen bidez gauzatzen da, bai pasiboa —aukeratzeko aukera— zein aktiboa —aukeratua izateko aukera—. Aldarrikapen hauek XIX. mende hasieran hasten dira zenbait lurraldeetan eta indarra hartuko dute mende horretan zehar. Baina benetazko sendoketa XX. mendean emango da, zentzu honetan ezin daiteke ahaztu emakumeen botu eskubidea zenbait estatuetan oso berandu ahalbidetuko dela².

Azken fasea eskubide sozialei dagokie, eta zalantzarik gabe, lan honetzako atalik garrantzitsuena. Definizio eta ezaugarriekin hasi baino lehen interesgarria izan daiteke eskubide hauek eta zibil eta politikoen arteko ezberdintasunak aipatzea. Horrela, esan beharreko lehenengo kontua zera da eskubide sozialei buruz ez dagoela sailkapen bakar edo argirik. Hau dela eta, arlo honetan askotan euren artean oso ezberdinak diren eskubideak barneratzen dira. Bestetik, eskubide hauek errekurso finantzieroak behar dituztenez, orokorrean, beraien garapena eta gauzaketa zaildu egiten da. Langabeziagatik jasotako diru laguntza, sindikatu baten kide izatea edota alderdi batek hauteskunde zerrrendetan aurkeztea, adibidez, oso eskubide ezberdinak dira. Eta lehenengoan errekursoak behar diren bitartean, beste bietan berme juridikoak normalean nahiko izaten dira hauen egikaritzea eman ahal izateko.

² Kasu honetan kontutan hartu behar da momentu oro Mendebaldeko Europari buruz ari garela hitzegiten. Beraz aipatutakoak ezin dira estrapolatu beste zenbait lekuetara, edo ez gutxienez osoki.

Hasierako zehaztapen hauek alde batera utzita, hemendik aurrera eskubide sozialak zer diren azaltzea izango da hurrengo helburua. Pietro Barcellona-rentzat, adibidez, herritartasunaren elementu soziala «herritarrek beraien bizitzarako eta lanerako behar dituzten segurtasun bermeak izango lirateke, hauen bidez nolabaiteko duintasuna bermatuko litzatekelarik, eta hau diru sarrera minimo bat izateko eskubidean laburtuko litzateke» (Barcellona, 1991: 29). Era berean, Marshall-entzat eskubide sozialak gutxieneko ongizatea bermatzera bideratzen diren ekimenak izango lirateke, gehien bat hezkuntza edota gizarte zerbitzuei lotuta (Marshall, 1998: 23). Baina hauetaz gain, badira ere arlo honetan sartu daitezkeen beste zenbait eskubide, Añón-ek hauen inguruko zerrenda zehatza osatzen du: «lan eskubidea, soldata duina izateko eskubidea, lan baldintza duinak izateko eskubidea, atsedena eta aisialdirako eskubidea, sindikatzeo eskubidea, adingabetuak lanean egiteko beharrik ez izatea, osasun fisikoa eta mentala izateko eskubidea, hezkuntza eskubidea, kulturarako eskubidea, etab. (Añón, 2000: 151-152).

Herritartasuna kontzeptuaren edukinak eta garapena

	Momentu historikoa	Eskubide ezberdinak
Eskubide zibilak	xviii. mendea	—Adierazpen askatasuna. —Elkartze askatasuna. —Epai justua izateko eskubidea.
Eskubide politikoak	xix. mendea	—Partehartze politikorako eskubi- deak: bozkatu eta bozkatu izatekoak.
Eskubide sozialak	xx. mendea	—Osasuna. —Hezkuntza. —Pentsioak

Horrela bada, eskubide sozialen helburua klase ezberdintasunak gutxitzea eta justizia soziala eta merkatu ekonomikoaren arteko lotura ahalbidetzea dira. Edo beste era batera esanda, berdintasuna eta askatasunaren arteko lotura gauzatzea. Bide honetatik, herritartasunak ondorio integratzaileak ditu merkatuak sortzen duen polarizazioaren aurrean. Horretarako, instituzionalizatutako elkartasunaren bidez kohesio soziala lortzen da; hau emateko gehien bat zergak eta politika sozialak erabiltzen dira. Askotan aipatzen ei da eskubide sozialen bidez edukina ematen zaiola herritartasunari. Bere horretan, bitzta aukeren eta giza

beharren aurrean berme gisa jolasten dute. Lehen aipatu bezala, ekonomiaren eremuari eta honek sortarazten dituen desorekei aurre egiteko hain zuzen ere (Marshall, 1981). Elementu sozialak, beraz, ekonomiak sortu ditzazkeen dependentzien aurrean, pertsonen independentzia eta autonomia bermatzen du, herritarrari nolabaiteko segurtasuna eskaitzen diolarik. Eremu honetan, helburu ezberdin batzuk azpimarratu daitezke, esaterako: segurtasun ekonomikoa eta soziala ematea, ezberdintasunak baretzea edota pobreziaaren aurkako politikak garatzea.

Aurreko pasartean komentatutako dinamika desmerkantilizazioa izeneko prozesuari esker ematen da eta kapitalismoaren bilakaerarekin erabat lotuta agertzen da. Azken honen garapenean zehar oinarrizko beharrak asetzeko gunea merkatua bilakatuko da. Lehen familia, eliza edota jauntxoaren funtzioa baldin bazen ere, kapitalismoaren eta sol-datapeko lanaren hedapenarekin batera merkatu ekonomikoak hartuko du lehentasuna, merkantilizazioa bezala ezagutzen den prozesuari ateak irekiz. Hauxe izango da kapitalismoaren hastapenetan emango den fenomeno. Horrela izanik, XVIII. eta XIX. mendeetan langileria ia merkantziatzat joko da, «merkatua langilearentzat gartzela izango da, eta bertan bizi irauteko langileak merkantzia bat bezala portatu behar-ko dira» (Esping-Andersen, 1993: 59). Baina eskubide sozialen bitartez dinamika honi aurre egingo zaio eta langilearen desmerkantilizazioa ahalbidetuko da, gehien bat XX. mendetik aurrera. Esping-Andersen-en hitzetan, desmerkantilizazioa «norbanakoak eta familiek merkatutik at izan dezaketen bizi kalitate duina izango litzateke» (Esping-Andersen, 1993: 60). Beraz, lan merkatuaren aurrean pertsona batek izango litzuzkeen askatasuna, aukera ahalmena eta autonomia izango litzateke desmerkantilizazioa.

Garapen konkretu hau dela eta, herritartasunaren «hirugarren hanka» honek berebiziko garrantzia hartuko du European Bigarren Mundu Gerra ostean eta Estatuak bere politika berbanatzaileak gauzatzeko ardatz normatiboa izango da eremu soziala (Mota, 1996). Era honetan ere, Ongizate Estatuaren ekarpenik haundiena hauxe izango da zehazki, eskubide sozialena. Hedapen honen ondorioz, herritartasun eskubideen «eraikina» bukatutzat jotzen da eta atzeraezinezko prozesu oso bat bezala ulertuko da eskubide sozialen bidez gauzatzen den herritarren ongizatea alegia (Harris, 1990).

Herritartasunaren kontzeptuaren egituratze honen bidez, gatazka sozial modernoaren zutabeak ere aldatu egingo dira (Dahrendorf, 1990). Horrela, lehen klase gatazka eta beraien arteko borroka baldin bazen erreforma politikoa gauzatzeko bidea; orain eta herritartasunaren il-dotik, klase gatazkaren muga asko aldatu eta eraberritu behar-ko dira. Horrela, klase batenganako izaera batetik, denak herritarrak izatera pa-

satzen da. Urrats kualitatiboak bada, baina baita kuantitatiboak: langile izatek herritarra izatearena, hain zuzen ere. Gatazka ekonomikoa arlo juridikora zuzentzen da —lan harremanak— eta klase borroka herritartasunaren bidez baretu egiten da (Dahrendorf, 1994: 113).

Ikuspegi «marshalliandarrak» eztabaida politiko eta akademikoa zuzendu egin du azken hamarkadetan eta gaur egun ere bada ardatzetaiko bat. Ongizate Estatuaren «urrezko garaietan» isilpean gelditu bada eztabaida hau, ezin esan kritikak eta ikuspegi ezberdinak gauzatu ez direnik honen inguruan. Are gehiago, azken urte hauetan, eta Ongizate Estatuaren krisiaren magalean, hauen inguruko ekarpenak asko bizitu egin dira. Dударik gabe, herritartasun kontzeptu honen kontrako kritika sutuenak neoliberalismoaren bidetik datoz. Perspektiba honentzat eskubide sozialak askatasun indibidualak eta herritartasunaren eremu zibil eta politikoen kontrako aldean jartzen dira, hauen arteko kontraesanak nabariak izanik, azken alor hauek nagusitu behar zaizkiolarik lehenengoari. Ikuspegi honentzat eskubide sozialak printzipio orokorrak izan beharko lirakeke, baina ez, inondik inora, konstituzioetan bermaturik agertzen diren eskubideak (Monereo, 1996: 197). Politika neokontserbadoreen hedapenarekin batera, ideiak hauek indarra hartu dute eta garrantzi handia dute gaur egungo herritartasunaren inguruko eztabaida ezberdinetan (Held, 1991). Bide honetatik, ardua kolektibo eta indibidualen inguruko eztabaidak ere agertu dira azkenaldian (Ignatieff, 1991; Mulgan, 1991), azken hauek erabat loturik agertzen direlarik herritartasunaren kontzepzio eta esanahiarekin. Horrela bada, neoliberalismoak ardua indibidualak gailentzen ditu kolektiboan aurrean, eta beraz, herritartasuna ulertzeko beste modu bat aurkezten du. Hurrengo kapituloetan, perspektiba hau gehiago landuko da, hortaz, hemen bakarrik idei nagusi hauekin nahiko izango dela uste da.

Kontzeptuaren muinera doazen kritika hauekin batera, Marshall-en teoriaren gabeziak eta hutsuneak azpimarratzen dituzten —baina teoria bera zalantzan jarri gabe— zenbait kritika ere topa daitezke. Askotan azaltzen den hauetakoa bat Marshall-en ikuspegi lineala, metatzailea eta ez dinamikoa da. Marshall-en aurrean, askok defendatzen dute herritartasunaren bilakaerak izaera dinamikoa eta gorabeheratsua duela; horrela, prozesua ez da automatikoa eta askotan eragile eta testuinguru ezberdinek eragina izaten dute honen garapenean. Era berean, prozesua ez da atzerazina, gaur egun Ongizate Estatuari egiten zaizkion kritikak eta honek jasan behar dituen tentsioak argi erakusten dute baieztapen honen nondiknorakoak. Hona hemen beste adibide bat, lurralde sozialistetan eskubide sozialak garatu egin ziren, baina zibil eta politikoen oso ahula izan zen, gainera azken hauen garapenik ez zen eman sozialak gauzatu baino lehen (Bottomore, 1998: 96).

Ikuspegi honen barruan ere, Heather-ek bost kritika nagusi egiten dizkio Marshall-en herritartasunaren teoriari (Heather, 1999: 19-24):

1. Marshall-en teoriak leku eta denbora konkretu batzuk aztertzen ditu eta eredu mugatu hau estrapolatzen saiatzen da.
2. Herritartasunaren kontzeptua arazo handiak erakutsi ditu historian zehar. Hasieran gizonezkoena zen soilik, sufragioarekin izandako gora beherek argi erakusten dute ideiei hau.
3. Baikorregia den teoria da, alde batean ahazturik uzten baititu errealtatean dauden arazo, muga eta atzera pausoak.
4. Eskubideen ikuspegi hirukoitza sinplekerian erortzen da eta bertan hauen artean sortu daitezkeen tentsioak ez ditu kontutan hartzen.
5. Marshall-en ekarpena ahistorikoa da eta garapen konkretu hau ahalbidetu duten gertaera eta ekintzak askotan ahaztu egiten ditu.

Laburbilduz, esan daiteke herritartasunaren garapena edota helmugara ailegatzea ez daudela bermatuta. Halaber, momentu oro tentsioan dagoen bilakaera konplexu baten baitan kokatzen da herritartasuna. Elementu hauek kontutan hartu behar dira behin eta berriz kontzeptu hau bere esanahi errealairen baitan ulertu ahal izateko. Era berean, eskubide ezberdinak garai berrietara eta hauek eskatzen dituzten behar berrietara egokitu behar dira. Hala nola, kultura, ingurumena, askatasun sexuala, pake edota genero alorretan eskubide berriak sortzen ari dira eta hauek halaberrez herritartasunaren barruan kokatu behar dira.

Azken alorrari erreparatuz —generoa— esan beharra dago feminismoak ere Marshall-en ekarpenei zenbait kritika egin dizkiola, gehien bat garapen hau gizonezkoetara mugatu dela azpimarratuz. Zentzu honetan, egia da emakumeen eskubideak beranduago gauzatu egin direla, eta askotan oraindik ere gauza asko daudela egiteke eremu honetan. Sufragioarekin gertaturikoa, honen adibide garbia da. Era berean, kultura edota etnia ezberdinentzat herritartasunaren garapenak bide eta abia-dura ezberdinak izaten ditu eta hau erronka handia suposatzen du gaur egungo gizarte modernoentzat (Bottomore, 1998: 106). Azken honi erabat lotuta, beste erronka handi bat agertzen da: herritartasunaren mugen zehaztapenena, hain zuzen ere. Edo beste era batera esanda, zein den eta zein ez herritarra zehaztea. Honen inguruan inmigrazioak galdera asko zabaltzen ditu eta lehen edo beranduago honi buruzko hausnarketa zabaldu beharko da, mota honetako galderei erantzunez: Herritartasuna nazionalitateari dagokio? Eta gehiago zehaztuz, bakarrik nazionalitate jakin batzuei? Unibertsala izan behar ote? Zalantza asko erantzuteke daude eta globalizazioaren zabalpenarekin batera noiz-

bait landu beharrekoak. Hala ere, gaur egun jada entzuten omen dira herritartasun unibertsalaren alde egiten duten zenbait egile, honen bidez Estatu-nazioen mugak gainditu ahal izateko.

Kontzeptu honen inguruko gogoeta berri hauek, zenbaitentzat herritartasunaren beste epe edo garai bat irekitzen dute. Horrela izanik, batzuk herritartasunaren hirugarren uhinaldi bati buruz hitzegiten dute. Lehenengoan eskubide zibil eta politikoak kokatuko lirateke, bigarrenean sozialak eta azken epe honetan gai berri hauei dagozkienak. Honen bidez Marshall-en teoria gaurkotu eta eraberritu ahal izango zatekeelarik. Zentzu honetan, ez du ematen gaur egun Marshall-en ekarpe- nek porrot egin dutenik. Hori bai, berritze lana behar dute tenstuinguru berrietara egokitzeko. Hau horrela izanik, teoria hau abiapuntutzat hartzea behar-beharrezkoa da honen inguruko edozein azterketa egiteko eta kasu honetan herritartasuna eta eskubide sozialak izango direnez ikerketagaia, are eta beharrezkoa da Marshall-en herritartasunaren teoria irteera moduan kokatzea.

Are gehiago, azken hamarkadetan emandako aldaketak direla eta herritartasunari buruzko gogoeta ezinbestekoa da gaur egun. Kontzeptu honen inguruan ideiak berriak berplanteatu beharko dira, baina beti helburu nagusia zein den ahaztu gabe: ongizatearen bidez pertsona orori bizitza duina eta autonomoa bermatzea alegia. Azken ideiak hau inoiz baino gaurkotasun gehiago du eta beraz helmuga hau bermatzea da helburua, nahiz eta akaso bitartekoak aldatu beharra, lan honetan zehar aztertu eta planteatuko den bezala.

1.3. Herritartasunaren egituraketa

Baina aurreko kezka eta zalantzei erantzun baino lehen, herritartasuna nola egituratzen eta gauzaten den jakin beharko da. Lehenago ere aipatu izan da gaur egun berdintasuna eta askatasuna herritartasunaren bidez uztartu egiten direla. Baina nola sortzen da herritartasuna? Automatikoki eratzen den prozesua al da? Zeintzuk dira kontzeptuaren nondiknorakoak zehazten dituzten faktoreak? Eta galdera guzti hauen atzean izkutatzen dena zera da azken finean, nola zertzen da norbanakoak gizartearengana konpromezua eta ardura sortzeko prozesua. Edo beste era batera esanda, nola sortzen dira pertsona bakoitzaren loturak eta kidetasunak gizarte zehatz batenganako eta ze nolako faktore eta baliabide instituzional baliatzen dira elkartasuna eta kohesio sozial hau ahalbidetzeko.

Pentsatu daitekeenez, gizarte bateko instituzioak —edo Rawls-en hitzak erabiliz, oinarriko egiturak— justuak izan behar dira eta justizia bultzatu behar dute, bestela ezinezkoa izango da berdintasuna eta bar-

ne kohesioa lortzea gizarte horren barruan. Era berean, instituzio hauek balore horiek sustatu behar dituzte gizartean. Azken finean, instituzioen «justutasuna» ez da nahikoa, herritar justuak ere «sortu» behar dituzte. Honi lotuta, aipatu daiteke Ongizate Estatuak batzuetan dikotomia hau batzen ez duela jakin, eta zenbaitetan herritartasunaren ikuspegi pasiboa bultzatu duela, nahigabe baldin bada ere, Estatuarekiko nolabaiteko dependentzia sortuz zenbait herritarrengan. Zentzu honetan, Habermas-ek aipatu egiten du Ongizate Estatuak herritartasunaren kontzeptio pribatuzalea eta honen nolabaiteko klientelizazioa suspertu duela behar zena baino gehiagoetan (Habermas, 1992). Horrela izanik, azken hamarkada hauetan Ongizate Estatuak askotan herritartasun aktiboaz ahaztu egin da, herritar bertutea eta kultura zibikoa bigarren maila batetara pasatu direlarik. Hauen orde, merkatuan eta konsumismoan oinarritutako baloreak nagusitu egin dira.

Guzti honen ondorioz argi gelditzen da justizia soziala edota berdintasuna ez direla soilik Estatuaren eginbeharra. Norbanakoaren aukeraketa ere oso garrantzikoa den elementua da. Beraz, ez dira soilik elementu kolektibo edo politikoak agertzen herritartasunaren eraikuntzan, pertsonalak eta moralak ere bai. Ikuspuntu honetan kokatzen da, adibidez, Cohen-ek, «gizarte baten justizia ez dela soilik bere egitura legegile edota bere arautegian oinarritzen, baizik eta arau horien barruan bakoitzak hartzen dituen erabaki eta aukeraketetan ere» esaten duenean (Cohen, 2001: 173). Hots, arautegi justu batekin batera, norbanakoen konpromezua ere beharrezkoa da gizartearen justutasuna lortu ahal izateko; bata zein bestea elkarloturik eta elkarbeharrean agertzen dira. Idei hauek defendatuz, Cohen-ek Rawls-en ideiei kritika egiten die. Izan ere, bere ustetan Rawls eta pentsalari liberal gehienek bakarrik instituzioei erreparatzen diete, baina ez hauen barruan norbanakoek hartzen dituzten erabakiei. Azken garai hauetan errotzen ari diren Bidezko Merkataritza edota Gizarte Ardura Korporatiboari buruzko ideiak, adibidez, Cohen-en ikuspegi honi erabat atxekitzen dira; instituzioez gain, bakoitzaren ardura etiko eta moralari ere garrantzia ematen baitiote. Eta denbora guztian pasarte honetan azpimarratzen ari den bezala, hau ematen da instituzioek ez dutelako erabat baldintzatzen norbanakoen portaera, aukeratzeko tarte bat badago eta gainera elementu garrantzitsua da. Eta hau guztia esan ondoren, derrigorrez, galdera bat luzatu behar da momentu honetan: Nola sortzen dira elkartasunean oinarritzen diren herritar justuak? Ikusten denez ez da galdera makala. Seguraski erantzun egokia bilatzeko Frantziar Iraultzaraino jo beharko da eta bertan agertzen den kontzeptu hirukote bati so egin beharko zaio garai haietan iraultzaren ikurra izan zen «Askatasuna, Berdintasuna eta Anaitasuna —fraternidad—» leloari hain zuzen ere.

Izan ere, askotan aipatzen da modernitatearen ardatzak askatasuna eta berdintasuna direla, eta askotan ere hirugarren ideia ez da azaltzen eta nahigabe edo nahita ahazturik gelditzen da nahiz eta berebiziko garrantzia izan, Doménech-ek esaten duen bezala «anaitasuna errepublikanismo moderno eta demokratikoaren ahaztutako balorea da» (Doménech, 2004:11). Eta argi izan behar da anaitasunik gabe ezinezkoa direla beste biak lotzea, eta beraz, zaila izango da herritartasuna osoa osatzea ere. Era honetan, anaitasuna, edo aipatu daitezkeen beste hainbat sinonimo —elkartasuna, gizartearenganako ardura, etab.— lerro hauetan sakonean komentatutako bi kontzeptu hauen arteko zubia edo lotunea da. Honekin jarraituz, anaitasuna pertsona bat bere ondokoa eta gizarte osoarengatik ardura eta elkartasuna adierazteko baloreen multzoa izango litzateke, edo hitz apalagoekin esanda «bestearen buruan kokatzeko ahalmena». Baldwin-en hitzetan, «elkartasun soziala «beharretan oinarritutako justizia izango zen. Jaiotza, ahalmen edo gaitasunen gainetik edozein pertsonak gizartearen laguntza jasotzeko aukera izan beharko luke, eta horrela dependentzia gutxitzeko erantzuna oparia izatetik eskubide izatera igarotzen da» (Baldwin, 1992: 63). Definizio honen arabera, elkartasuna eskubidea ere bada eta ez karitatea edota mesedeen munduan kokatzen den elementua. Honetarako, elkarkidetzaren bezalako baloreak beste batzuen gainetik kokatu behar dira eta «pertsonak beste pertsonetaz arduratzea eta konpromezuak hartzea beharrezkoa suertatzen da» (Cohen, 2001b: 72). Laburbilduz, esan daiteke nolabaiteko adostasuna ematen dela komunitate baten barruan okerren daudenenganako gizarte osoak duen ardura eta laguntzeko behararen inguruko ideian (Plant, 1974). Edo beste hitzekin esanda, bakoitzaren egoera guztion ardura da, gizartearen ardura.

Balore hauek ez dira berez sortzen, landu eta bizi behar dira. Eta honetarako ezinbestekoa dira kultura zibikoa eta herritar bertuteak —virtudes ciudadanas—. Eta guzti hau dinamikoa eta bukatuezina den progresu batean errotuta dago. Hezkuntza edo lehen sozializazioak momentu garrantzitsuak dira prozesu honetan, eta bereziki eskolaren ardura azpimarratu behar da balore hauen sustaketan (Gutmann, 1987); azken urte hauetan baloreen hezkuntzari ematen zaion garrantzia, adibidez, ez da kasualitatea eta prozesu honen baitan errotzen den fenomeno da. Hala ere, honek ez du esan nahi balore hauen ikasketa bitzta osoan edota leku guztietan ematen ez denik.

Horrela bada, ezinbestekoa suertatzen da herritartasun aktibo eta partehartzailea sortzea eta hedatzea, eta bertan norbanakoaren garrantzia izugarria da. Era berean, ezin ahaztu hedapen honetan zenbait elementuek duten garrantzia: zerbitzu sozialen kalitatearen hobekuntza edota unibersalizazioa; edo ustelkeria politikoa eta partehartzea

sustatzea, besteak beste, dira honen adibide. Beraz, argi gelditzen da *feed-back*-a sortzen dela, «arautegiek, eta bereziki konstituzioek, herritartasuna bultzatu eta bermatu behar dute, baina era berean herritarrak prozesu guzti honetan era aktibo batean parte hartu behar du» (Van Gunsteren, 1998). Beraz, eta lehen esan bezala, herritartasuna ezin da ulertu status juridiko soiltzat; partehartzea, elkartasuna edota ardura kolektiboak bultzatzen dituen egoera era bada. Eta hau gaur egun gizarte modernoek duten erronka nagusienetakoa da.

Agian, herritartasunari buruzko teoretan, ideiak hauek hoberen ordezkatzeko dituztenak Errepublikanismoa eta Kapital Sozialaren Teoria dira: Alde batetik status juridikoa bermatzen baitute, baina era berean partehartze soziala eta politikoa ere bultzatzen dute. Mouffe-n hitzetan, «herritartasunaren bidez etika eta justiziaren arteko lotura berrezarri beharko litzateke, eta honetarako «res-publica»-rekiko atxekipena bultzatu beharko zen (Mouffe, 1992: 227). Eta honetan, aipatutako bi teoria hauek badute zeresana, ondorengo lerroetan ikusiko den bezala, herritarren eta instituzioen etika eta moralak uztartzeko egiten duten saiakera garrantzitsua bezain interesgarria baita.

Errepublikanismo moderno edota neorepublikanismoa, aintzinateko errepublikanismoan oinarritzen da, baina zenbait elementu hartu eta beste batzuk izkin batean uzten ditu gaur egungo gizarte eta aspektuei hobeto egokitu ahal izateko. Alde batera utzitakoak izango lirateke, adibidez, bertute militarren goraiatzea edota gizonak —eta ez emakumeak— izatea herritar bakarrak. Errepublikanismoarentzat publikoa —lo público— da bizitzaren gunea, eta pribatua dena beti honi azpiratuta egongo da. Herritar bertutea, arlo publikoan lortzen da, gai amankomunei buruzko eztabaidaren bidez, hain zuzen ere. Ideiak hauek abiatuz, errepublikanismo berriak bere herritartasunaren teoria eraikitzen du, beste kontzeptu batzuen aurrean, liberala edo komunitarioa, esaterako; azken bi ikuspegi hauek ere ideiak hartu egingo dituelarik. Horregatik esan daiteke errepublikanismoak liberalismoa eta komunitarismoaren arteko nolabaiteko mestizaia edo tarteko erantzuna ahalbidetzen duela, bertan errepublikanismo zaharraren zenbait ideiak ere txertatzen direlarik (Van Gunsteren, 1998: 24-25).

Ikuspegi komunitaristatik norbanakoa komunitate batean errotuta dagoen entea bezala ikustea bereganatzen du, komunitatea «res-publica» bezala ulertzen baita. Era honetan errepublikak —komunitate politikoak— berebiziko garrantzia du herritartasunarentzat. Era berean, errepublikak norbanakoaren askatasuna bermatzen du besteen interes edo nahien aurrean. Beste garaietako errepublikanismoetik bertutearen ideia hartzen du, baina lehen esan bezala, alde batera utzita aspektu militarrik. Bertutea bakoitzaren moraltasunetik zein errepublikar bertutean

oinarritzen den jokaera zibikoa izango litzateke. Azkenik, liberalismotik, norbanakoaren herritartasuna bermatzeko beharra bereganatzen du.

Era honetan, errepublikanismoarentzat, anaitasuna herritartasunaren oinarria da eta askatasuna eta berdintasuna uztartzen dituena. Hauen arteko harremana joan-etorrikoa delarik. Beraz, elkarbeharrean daude bai anaitasuna zein herritartasuna. Azken hau publikoarekiko behar oso eta etengabekoa bezala ikusten da errepublikanismoarentzat (Béjar, 2000: 14), eta instituzioek bultzatutako herritar bertutearen bidez gauzatzen da hain zuzen ere lan honetan hainbeste aipatzen den herritartasuna. Skinner-en hitzetan, herritartasun errepublikar honek definizio honekin bat egingo luke: «borondatez ondare amankomunaren alde egiteko ahalmenak, komunitatearen askatasuna bermatzeko eta bide batez askatasun indibiduala ere bermatzeko» (Skinner, 2004: 106). Definizio honetan oso argi ikusten da askatasun indibidual eta partehartze publikoaren arteko harreman hori. Era honetan, eskubide indibidualak eta partehartze aktibo eta bertutetsua uztarturik gelditzen dira herritartasunaren baitan (Sunstein, 2004). Biak batera doaz, eta partehartzea ez bada ematen seguraski instituzioen ahulezia eta ustelkeriarentzako atek irekirik geldituko dira.

Askatasun indibidual hauek bermatzeko, gaur egungo errepublikanismoak herritartasuna gauzatzeko gutxieneko berme material batzuk eman behar direla aldarrikatzen du. Reed-en hitzetan, «demokrazian benetazko herritarra izateko, gutxienezko oinarrizko independentzia behar da. Eta honetan independentzia ekonomikoa ezinbesteko baldintza da herritarra gauza publikoetaz eztabaidatzeko» (Reed, 1999: 32). Edota, beste hitzekin esanda, gutxieneko baldintza material batzuk bermatu behar dira partehartze publikoa ahalbidetzeko.

Horrela izanik, liberalismoaren interferentziarik gabeko askatasunaren aurrean, errepublikanismoak dominaziorik gabeko askatasuna defendatzen du (Pettit, 1999). Dominazioa, jabea eta esklabua edota jauntxo eta jopuaren arteko harremana izango litzateke. Laburki esanda, zapal-tzaileak zapalduaren gainean ezarritako interferentzia arbitrarioa izango zen, zapalduaren iritzia, noski, kontutan hartzen ez delarik (Pettit, 1999: 41). Era honetan, pertsona bat bere bizitzako arlo batean zapaldua baldin bada, ez da inoiz libre izango eta hau ekiditeko interferentzia arbitrarioak dira saihestu behar direnak. Dominazio egoera hauek arlo domestikoan, politikoan edo lan arloan ematen dira, besteak beste. Eguneroko bizitzak honen inguruko adibide anitz eskeintzen ditu. Gutxieneko material batzuk bermatuta ez dituen pertsona batentzat, adibidez, zaila izango da partehartze politiko libre gauzatzea. Era berean, zenbait emakume ez dira libre izaten bere jardueretan bere bikotearen menpe daudelako. Lan arloan ere ugariak dira kasuak, prekarizazioa dela eta,

adibidez, langilea eta enpresarioaren arteko harremanak gero eta desorekatuagoak dira. Ikusten denez, adibide guzti hauetan, batzuek zapalduaren papera hartzen dute, eta beste batzuek, aldiz, zapaltzailearena; eta noski, egoera hauetan, teoria errepublikarrentzat dominaziorik gabeko askatasuna guztiz zanpatuta eta desitxuratuta gelditzen da.

Hau dela eta, komunitateak bere gain hartu behar du egoera hauek ekiditea eta dominaziorik gabeko askatasuna sustatzea. Baina honekin jarraitu baino lehen argi utzi behar da ere dominazioa eta interferentzia gauza bera ez direla. Interferentziarik gabeko dominazioa eman daitekeen bezala, interferentzia batek ez du beti zertan dominazioan bukatu behar. Benetan saihestu beharreko interferentziak, arbitrarioak direnak dira. Ez arbitrarioak onargarriak izan daitezke zenbaitetan, eta ez hori bakarrik, beste batzuetan beharrezkoak dira ere. Azken talde honetan kokatu beharko lirakeke, adibidez, Estatuak dominazioa ekiditeko bere gain hartzen dituen ekimen guztiak. Zehatzago, maila sozialean egikaritutako politika gehienak sail honetan koka daitezke. Horrela bada, errepublikarrentzako politika sozialak dominaziorik gabeko akatasuna lortzeko ezinbesteko tresna dira eta zenbaitetan interferentziak berak beharrezkoak izango dira dominazioari aurre egiteko.

Esandakoa laburbilduz, errepublikanismoak herritartasuna status legal eta eguneroko praktikatzat jotzen du. Horrela bada, Marshall-en ikuspegiari balore zibikoak eta elkartasuna sustatzen dituen partehartze politikoa gehitzen dio. Era berean, Frantziar Iraultzaren hiru ide nagusiak blindatuta gelditzen dira. Dominaziorik gabeko askatasunak benetazko askatasuna eta berdintasuna bermatzen ditu, eta herritartasunean oinarritutako partehartze politikoak anaitasuna eta elkartasuna bultzatzen ditu gizarte osoarengan.

Ikuspegi errepublikarra abiapuntutzat hartuz, eta herritarra bezala partehartze aktiboari garrantzi handia emanez, gero eta indartsuagoa agertzen ari da kapital sozialaren teoria. Honen helburu nagusien artean, partehartzea berpiztea eta elkartasuna edota anaitasuna bezalako kontzeptuak indartzea dira, besteak beste. Era berean, globalizazioa dela eta, teoria honek gero eta oihartzun handiagoa du lurralde garatuetan (Danreuther eta Dolfma, 2003). Egile batzuk diotenaren arabera ikuspegi honekin «Pandora Kutxa» berri bat zabaldu egin da (Isham, Kelly eta Ramaswamy, 2002: 4). Testuinguru honetan ez da kasualitatea kontzeptuak jasan duen hedapena azken hamarkada hauetan. Aipatu den bezala, teoria honen hastapenak jarrera errepublikarretan topa daitezke; baina kasu honetan bertute errepublikarra gizarte zibilean gauzatzen da: hots, hirugarren sektorea deritzon elkarte eta giza mugimendu ezberdinetan. Béjar-ek aipatzen duen bezala, «bertute modernoaren kabia hirugarren sektorean bilatu behar da» (Béjar, 2000: 211). Pentsatu dai-

tekeenez, teoria honetan bolondresaren filosofiak eta bertan topa daitezkeen baloreak garantzia handia hartzen dute; hauen barnean parte-hartzea, elkarrizketa, eztabaida, herritar bertutea, eremu publikoarekiko atxekimendua edota elkartasuna bezalakoak topa daitezkelarik, beste askoren artean. Eta guzti honen baitan kokatzen da Kapital Sozialaren teoria.

Woolcock-en definizioa jarraiki, «kapital soziala ekintza kolektiboa errazten duten arau eta sare sozialak izango lirateke» (Woolcock, 2002: 22). Putnam-entzat, teoria honen egilerik garrantzitsuenetarikoa —garrantzitsuena ez bada—, «kapital sozialaren ideia nagusia sare sozialek bere baitan balio bat badutela da» (Putnam, 2002: 14). Era berean, azken egile honek 90. hamarkadaren hasieran egindako beste definizio batean kapital soziala «elkarkidetzeta eta gizartearen efizientzia hobetzen eta errazten duten konfidantza, arau eta sare sozialak bezalako ezaugarrien multzoa» izango litzateke (Putnam, 1993: 163). Horrela bada, kapital sozialak pertsonen arteko harremanak azpimarratzen ditu, konfidantza, konpromezua edota elkaremana bezalako baloreak goraiatzen dituelarik. Testuinguru honetan bertute zibikoak —la virtud cívica— hartzen du garrantzia, hau harreman sozial indartsu eta egonkorra dauden leku eta momentuan ematen da; isolaturiko leku batean, aldiz, harreman hauek ezinezkoak izango dira. Horregatik prozesu honetan zehar elkarekintza eta sareei —interacción y redes— ematen zaien garrantzia hain handia da. Elkarekintza berebiziko garrantzia baldin badu, elkarekintza hau gauzatzen den eremu ezberdinek ere elementu azpimarragarriak izango dira, horien artean familia, lagunak edota elkarte ezberdinak topa daitezke.

Teoria honen defendatzaileentzat gizarte barruan bultzatzen diren elkar-hartu emanez gizarte horren konfidantza eta efizientzia hobetzen dute, esaldi honek oso ondo erakusten duen bezala: «Sare sozial indartsuek elkar-hartu emanez arau orokorrak sustatzen dituzte: momentu honetan nik hau egiten dut ezere truke, badakidalako zuk (edo beste edozein) hurrengo batean gauza bera egingo duzula» (Putnam eta Goss, 2003: 14). Hau dela eta, zenbait egileek gaur egun kapital soziala, giza kapitala eta fisikoarekin batera aztertzen dute, «gizarte bat batu eta lotzen duen kola izango litzatekelarik» (Danreuther eta Dolfsma, 2003: 20). Guzti honetatik gauza bat eratorritzen da halaberrez: kapital sozial sendagoa duten gizarteek hobeto trata dezakete barne gatazka ezberdinak edota gizarte bazterketa bezalako arazoak. Era berean, giza garapena zein ekonomikoa gauzatzeko tresna gehiago ere izango dituzte. Bukatzeko beraz, esan daiteke kapital sozialak barne kohesioa eta integrazioa ahalbidetzen dituela komunitate baten baitan. Honi lotuta, aipatu daiteke teoria honek beste zenbait teoriekin ere bat egiten duela,

Sen-en Garapenaren Teoriarekin esaterako. Bietan, garapena askatasun errealak haunditzen dituen kontzeptua bezala ikusten da, eta bietan ere garrantzi handia ematen zaio komunitateari zein testuinguruari.

Maila teorikoan modan dagoen kontzeptua izaki, zailagoa da baiko-rra izatea errealtateari dagokionez. Izan ere, kapital sozialaren egoera gaur egun lurralde garatu gehienetan nahiko ahula eta baxua da. Idei hau guztiz baieztatuta gelditzen da herritartasunaren partehartze aktiboaren krisiari erreparatzen bazaio. Hau aztertzeko, ikerketa gehienek elkarteen nondiknorakoak aztertzen dituzte eta datuak ez dira pozik egotekoak orokorrean. Zentzu honetan, oso interesgarria da Putnam-ek EEBB-etako egoerari buruz egindako ikerketa, «Bowling Alone» izeneko. Izenburua arraroa eman dezakeen arren, oso ondo irudikatzen du EEBB-etako kapital sozialaren krisia. «Boloak», EEBB-etan tradizionalki lagunekin egindako jarduera eta aisialdi ekintza izan da, lurralde honetako telebista serie edo pelikuletan askotan isladatu da bereizgarri kultural hau³. Hala ere, gero eta normalagoa da jendea boletara bakarrik joatea, lagun kuadrilla alde batera utziz, eta joku honek zuen errito soziala funtzioa ageriko krisian agertuz (Putnam, 2002). Kasu honek, eta beste askok ere, argi uzten dute kapital sozialaren krisia eta herritartasun aktiboaren krisiaren aurrean gaudela.

Ildo berean, kokatzen da Putnam-ek zenbait lurralde garatuentzako honen inguruan egindako txostena. Asoziazionismo maila abiapuntu-tzat hartuz nabaria da lurralde gehienetan partehartzearen jeitsiera bat eman dela hauteskundeetan, alderdi politikoetan, sindikatuetan edota elkarte erlijiosoetan. Bestaldetik, kirol edo aisialdiarekin lotutako elkar-teetan partehartzea handitu egin da. Datu hauek argi erakusten dute ekintza kolektibo edota interes publikoan oinarritutako partehar-ze batetik norbanakoaren gozapen eta helburu orokorrik gabeko partehar-ze batetarako igaroaldia eman dela, nolabaiteko kapital sozialaren pribatizazioa gauzatu (Putnam, 2003: 648). Ikerketa honetatik atera daitekeen beste ondorio bat sarritan Ongizate Estatuaren kontra erabili-tako argudio baten ezeztaketa da: askotan aipatu da Ongizate Estatuak partehartzea zaildu eta galerazten zuela, nolabaiteko gizarte zibilaren loaldia bultzatuz. Baina datuen arabera, hau ez da horrela; are gehiago Ongizate Estatu sendoa den lekuetan partehartzea ere sendoa da eta alderantziz. Honekin jarraituz, kapital sozialaren eraketan politika sozia-len garrantzia azpimarratzen da, Suedia edota EEBB-etan politika hauek izandako eragina apuntatzen delarik (Putnam, 2003).

³ «Los Simpson» edota El Gran Lebowski bezalako pelikulan oso ondo ikusten da hau.

1.4. **Berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna: Ongizate Estatua helmuga**

Kapitulu honetan zehar herritartasunari buruzko sarrera bat egitea izan da helburua, bertan berdintasuna eta askatasuna eta herritarren eskubideei buruzko gogoetak egin direlarik. Horretarako, herritartasuna, berdintasuna edota justizia sozialari buruz dauden ikuspegi ezberdinak plazaratu eta aztertu egin dira. Era berean, herritartasuna bere baitan askatasuna eta berdintasuna elkartasuna eta gizarte kohesioaren bidez —anaitasuna, «fraternidad»— gordetzen dituela izan da hemen defendatutako ideirik nagusia. Modernitatean, prozesu hau Ongizate Estatuarekin batera eman da, bertan Marshall-en herritartasunaren kontzeptua garatu da eta eskubide mota ezberdinak —zibil, politiko eta sozialak— bermatu omen dira honen bidez. Bide honetatik, berdintasunaren —berdintasun errearen— balio moral gorenaren defendatu da gizarte modernoetarako.

Guzti honengatik, kontzeptu hauen lanketarako ezinbestekoa da ere ongizate eredu ezberdinek jarraitutako bideak ezagutzea eta etorkizunean aurreikusi daitezkeen dinamikak antzematea (Esping-Andersen, 1993). Ongizate Estatua, zehazki justizia soziala eta berdintasunak azalerrak dituzten errorei aurre egiteko jaiotzen da, eta elkartasunean eta integrazio sozialean sinisten duen pertsona ororentzat helburu baztertuezinak dira hauek. Zentzu honetan, ezin da ahaztu elkartasunean eta kohesioan oinarritutako gizarteek «estres» maila txikiagoa erakusten dutela eta alderantziz (Wilkinson, 2001). Horrela izanik, Ongizate Estatuaren bidez arriskuak denon artean elkarbanatzen dira eta lehen norbanakoaren ardurak zirenak guztionak izatera pasatzen dira (Baldwin, 1992: 19). Eta arlo soziala karitatearen barruan egotetik, justiziaren oinarria izatera eta politika sozialen bidez elkartasunaren instituzionalizatzea lortzen da Ongizate Estatuaren bidez.

Zenbait egileentzat anaitasunaren —elkartasunaren— instituzionalizazio prozesu honek ondorio ezkorrak izan ditu, partehartze txikiagoa eta baloreen urraketa eman baita dinamika hauengatik eta Ongizate Estatuaren garapenaren ondorioz. Hauetako batzuk akaso emango ziren, baina Putnam-en makroikerketaren datuei erreparatuz baieztapen hauek ez dute oinarri sendorik eta zenbaitetan ere kontrako ondorioak ateratu daitezke. Guzti honek argi uzten du herritartasunaren berpiztea emateko ez dela behar-beharrezkoa Ongizate Estatuaren gainbehera ematea. Aitzitik, honen berplanteamendua da bultzatu behar dena herritartasunaren berindartzea eta partehartzea eta elkartasuna bezalako baloreak sustatu nahi badira behintzat. Putnam-en ikerketarekin jarraituz, bertan oso ideiak erakargarria azaltzen da: partehartze handiena

egoera ekonomiko ona dutenen artean ematen da. Honek, zuzenean beste ideei batetara eramaten du, partehartzea eman ahal izateko gutxieneko material bat bermatuta egon behar da. Eta azken honek, berriaz Ongizate Estatuaren beharrera daramatza, izan ere hau gabe asko zailtzen da partehartze aktiboa eta herritar bertuteak garatzeko aukera ezberdinak.

Ongizate Estatuarekin jarraituz, ezin ahaztu honen justifikazio gorena morala dela. Gure aukeraketen aurrean pertsona ahulenen babes, behar moral bat da (Goodin, 1988), elkartasunean oinarritutakoa eta gehienetan merkatu ekonomikoari lotuta. Eta azken urte hauetan behar moral hau krisian sartu da. Zentzu honetan, interesgarria da Ascher eta Godard-ek honen inguruan eginiko ekarpenak. Hauen ustez egitura sozialean emandako aldaketek lotura sozialen ahulezia bultzatu dute. Hau dela eta, lotura sozial hauen berplanteaketa beharrezkoa dela ematen du, garai berrietara hobeto egokitu ahal izateko, hain zuzen ere. Honekin batera ere, elkartasun berri bat planteatu beharko da, aniztasunean oinarrituta eta bi egile hauek esaten duten bezala «elkartasun erreflexiboa» izan beharko dena (Ascher eta Godard, 2000).

Askatasunean eta berdintasunean oinarritutako Ongizate Estatu mantendu nahi bada behar-beharrezkoa da elkartasun hau sustatzea. Hau irudikatzeko hoberena agian adibide bat jartzea izan daiteke. Horrela, zergak injustizia edota lapurreta bat bezala ez ikusteko orokorra izan behar da gizarte barruan elkartasunarenganako atxekipena eta ahulenek gutxieneko material baten beharra defendatzen duten ideiak. Balore hauek ez badira lantzen eta jorratzen ezinezkoa izango da elkartasuna edota barne kohesioa lortzea. Era honetan, lehen aipatutako ideia bat azaltzen da: instituzioek helburu hauen alde borrokatu behar dute, baina balore hauen hedaketan ere garrantzi handia dute; honen bidez herritar bertutea zabaltzen baita eta esan bezala, herritarrek ere badute zeresan handia lan honetan.

Gaur egun printzipio eta balore hauek bermatzen ari al dira? Hauxe da hain zuzen ere lan honen galdera nagusia eta hurrengo kapituloe-tan galdera honi erantzunak bilatzea izango da helburua. Horretarako, hurrengo kapituloan herritartasunaren krisia landuko da, eta azkenik herritartasunaren krisi honi aurre egiteko planteatzen ari den Oinarrizko Errentaren kontzeptua aztertuko da, azken honek herritartasuna bere-raitzeko dituen ahalmen eta potentzialitate guztiak azpimarratuko direlarik.

2. kapituloa

Herritartasunaren krisia - ongizate estatuaren krisia

2.1. **Herritartasuna eta Ongizate Estatuaren arteko lotura, enplegua tartean**

Aurreko kapituloan modernitatearen gizarte hitzarmenaren baitan herritartasunak jokatu duen papera aztertua izan da. Kontzeptu honek zein Ongizate Estatuak, status juridikoa lortuko dute eskubide sozialen aipamena konstituzio ezberdinetan egiten denean. Prozesu honi Europan hasiera emango zaio Bigarren Mundu Gerraren bukaerarekin batera: Frantzia, 1946. urtean; Italia, 1948. urtean; Alemania Federala, 1949. urtean, etab. (Contreras, 1996: 141). Momentu honetatik aurrera bi kontzeptu hauek batera eta «ezkonduta» agertuko dira, baina baita ere enplegua. Azken hau izango baita Ongizate Estatuaren oinarria eta eskubide sozialen babeslea. Hortaz, herritartasuna lantzeko ezinbestekoa suertatzen da Ongizate Estatu eta enplegua kontutan hartzea ere.

Era honetan, enpleguak langileei soldata bat eskainiko die, baina ez hori bakarrik, eskubide sozialen atea irekiko duena enplegua izango da, bertan langabezi prestazioak, gaisotasunei aurre egiteko aseguruak edota jubilazioak azpimarratu daitezkelarik. Dinamika honen bidez, lehen langileen buruen gainean zeuden arrisku eta segurtasun eza hein handi batean desagertu egingo da (Anisi, 1995) enplegua eta Ongizate Estatuaren artean ematen den uztarketa honen bidez. Era berean, lehen herritartasuna lortzeko jabegoa baldin bazen garrantzitsuena, hemendik aurrera enplegua izango da herritartasuna izateko «pasaporte», edo beste era batera esanda, langilea dena herritarra ere izango da.

Dinamika guzti hau enplegu mota jakin bati lotuta egongo da, enplegu fordistari, hain zuzen ere. 1945-1973. urte tartean nagusituko den

eredua izango da Mendebaldeko Europako lurralde gehienetan eta bere ezaugarri garrantzitsuenen artean datu makroekonomiko onak lortuko dituela izango da: langabezi tasa oso baxua eta hazkunde ekonomiko etengabekoa. 1975. urtean, adibidez, Europako batzbesteko langabezi tasa %4,5ean kokatzen zen (Dahrendorf, 1994: 128). Testuinguru ekonomiko honek ondorio oso baikorrak izango ditu Ongizate Estatuaren bilakaeran. Horrela, enplegu tasa handiari esker, kotizazio sozialak gero eta ugariagoak izango dira, eta langabezi prestazioak, aldiz, gero eta urriagoak. Guzti honen bidez, joan-etorriko dinamika ezinhobea sortzen da: merkatuak politika publikoen beharra du, baina era berean politika publikoak merkatuaren egoera osasuntsuaz baliatzen da Ongizate Estatu sendoa eraiki ahal izateko. Baina, 70. hamarkadaren krisiarekin batera, «erloju-mekanismo» osoa hankaz gora jartzen da eta lehen efektu onuragarriak sortzen ziren tokian, arazoak baino ez dira sortuko, alde-rantzizko dinamika oso nabaria izango delarik: desenpleua hazi egingo da eta honekin ordaindu beharreko prestazio ekonomikoak ere gero eta gehiago izango dira. Argi geldituko da aurreko politika publikoek jada ez dutela aurreko enplegu tasarik bermatzen (Muñoz de Bustillo, 2000). Egoera honetan, eta enplegu fordistaren krisiarekin batera, pentsa daitekeen bezala, herritartasuna eta Ongizate Estatuaren krisia ere ahalbidetu egingo da.

2.2. Enplegu fordista: ezaugarri nagusiak

Krisiaren nondiknorakoak aipatu baino lehen interesgarria eta beharrezkoa suertatzen da enplegu fordistari buruzko zehaztapen batzuk ematea. Hauek gabe ezinezkoa izango baitzen krisiaren zergatiak ulertzea. Lehenik eta behin, esan beharra dago enplegu mota hau segurtasunean eta egonkortasunean oinarritzen dela. Bi elementu hauek izugarrizko garrantzia dute eta eredu hau guztiz baldintzatu egingo dute. Horrela bada, garai honetako enplegua egonkorra, jardunaldi osokoa, mugagabea, bizitza osorako izango da orokorrean eta lan baldintzak hobetzeko aukerak nahiko handiak izango dira beti ere.

Lan ibilbide osoan zehar normalean ikasi egin den lanbidea izango da nagusi. Formakuntza epe txiki baten ostean, oso gazte hasten da jendea lanean —hasiera batean, beheko postuetan— eta urteak joan ahala lan postuaren hobekuntza ematen da. Fase hau jubilazioarekin batera bukatzen da gehienetan, 40-45 urteko lan ibilbideak sarritan emango dira. Dinamika hauek 1945-1970 urteetan zehar orokortu egingo diralarik (Handy, 1986). Antzeman daitekeenez, lan ibilbide luze hauek urte luzeko kotizazioak bermatuko dituzte, eta honek kalitate oneko

prestazio sozialak ahalbidetuko ditu, gehien bat pentsioei dagokionez. Gainera, ezin da ahaztu, garai hauetan lan ibilbidean zehar emandako etenak oso gutxi eta laburrak izaten direla.

Azken pasartean esandakoarekin lotuta, bizitzaren fase ezberdinak oso markatuta egongo dira. Hasieran, denbora gutxiko formakuntza eta hezkuntza emango da; gero lan merkatuari eta heldutasunari lotutakoa eta luzeena dena etorriko da; eta azkenik, jubilazioa. Epe batetik besterako igaroaldia ez da gehienetan arazo bat izango, eta era logiko, lineal eta koherente batean emango da. Horrela bada, bizitzan segurtasuna ezaugarri garrantzitsua izango da. Era berean, lan ibilbidea desenplegua salbuespena den testuinguru batean emango da, honek aukera eta baliabide handiak emango dizkio langileei negoziazio kolektiboaren aurrean (Prieto, 1999: 17). Ahalmen hau soldaten igoera eta lan baldintzen hobekuntzen aldarrikapenetan irudikatuko da. Eta bilakaera guzti hau hobeto azaltzen duen sektorea lan publikoari lotutakoa izango da (Bouffartigue, 1999: 13), bertan egonkortasuna eta bermeak zeinu bereizgarri izango direlarik eta gaur egun enplegu mota hau mantentzen den sektore bakarrenetarikoa izanik.

Orokorrean, lan ibilbidearen hasieran langileak soldata baxua jasoko du, baina denbora pasa ahala, soldata honen hobekuntza etengabekoa izango da (Fitoussi, 1996). Honi lotuta, behar ekonomikoei buruzko kezka bigarren mailara pasako dira eta etorkizunaren perspektiba beti baikorra eta gorakorra izango da. Honen bidez, lehen aipatutako segurtasun sentazioa bermatu egingo da, materialki zein psikologikoki.

Eredu honen beste ezaugarri bat gizonezkoen enplegu mota izatea da. Izan ere, fordismoa gizonezko langileetan oinarritzen da (Esping-Andersen, 1996: 350). Langilea «etxeko gizona» izango da eta berak jasotzen duen soldata familia osoko sodatatat joko da. Horrela izanik, rol banaketa argia egiten da familiaren barruan: gizonezkoak lan merkatura joko du ekoizle — trabajo productivo— lana egitera; eta emakumezkoa, aldiz, etxean geldituko da lan berekoizlearen — trabajo reproductivo— buru. Guzti hau jakinean izanik, ez da harritzekoa eredu honetan sortutako harremanak desorekan oinarritzea, emakumearen —soldatarik gabeko lana— dependentzia gizonarekiko —soldatapeko lana— oso nabaria izango delarik. Askok jota, emakumeak ezkondu arte lan egingo du, baina guztiz barneratuta dauka ezkondu eta gero bere lana etxearan eta seme-alaben zainketa izango dela (Watson, 1995: 132), gutxienez hasierako momentu batean eta umeak adin jakin bat izan arte. Era berean, gizonezkoak ere argi izango du bere zeregina enplegu bat izatea eta etxera soldata eramatea izango dela.

Ezaugarri guzti hauek direla eta, enpleguak izugarritzko garrantzia izango du pertsonen bizitzaren bilakaeran, bai identitate pertsonala zein soziala eraikitzerako momentuan edota euren behar materiala asetzeko. Horrela izanik, enpleguak, pertsoneri identitate bat eskainiko die —euren lanbidea-, eta hau bereizgarri garrantzitsua izango da besteen aurrean. Garai honetan norbaiti zer zaren galdetzen zaionean, usuena lanbidea erantzutea izango da, adibide honek argi uzten du enpleguak ze nolako garrantzia duen identitatea eratzerakoan. Era berean, bizitza enpleguaren arabera planteatzen da, enplegua izango delarik honen bizkar hezurra eta dinamika logiko eta lineala bultzatuko duena. Horrela, «hasiera batean peoi moduan sartzen da pertsona lantegian, baina piskanaka-piskanaka denborarekin batera, pertsona horrek ardurua gehiago eta soldata altuagoa bereganatuko du. Era berean, bizitzan etxe zahar eta txiki batean biziko da, baina denborak aurrera joan ahala, askoz erosotasun gehiago dituen etxebizitza lortuko du pertsona honek» (Moreno, 2003: 205). Beraz, enplegua eta bizitza parez-pare joango dira azken honen fase ezberdinetan zehar.

Testuinguru honetan segurtasun eza edota desengorkortasuna eredu honetatik at gelditzen diren elementuak dira, hauen kontrakoak baitira eredu honen zutabeak. Enplegu fordista segurtasunean eta zailtza gutxiko ereduak da. Gainera, ezaugarri hauek ez dira enplegura mugatzen, eguneroko bizitzan segurtasuna eta linealtasuna nagusi izango dira. Baina, hasieran aipatu bezala, 70. hamarkadatik aurrera, eredu honek hutsuneak erakutsiko ditu eta esandako ezaugarri guztiak —edo gutxienez gehienak— krisian sartuko dira. Eta enplegu mota honekin batera Ongizate Estatua eta herritartasun kontzeptuak ere, noski.

2.3. Enplegu mota berria: txanponaren beste aldea

Azken hamarkada hauetan lan munduan emandako aldaketek bertan behera utzi dute askorentzat aurreko puntuan komentatutako enplegu mota. Horren ordez, sarritan enplegu fordistaren kontrako ezaugarrietan oinarritzen den ereduak topa daiteke. Horregatik, hain zuzen ere, atal hau lantzerako momentuan, aurrekoan erabilitako eskema jarraituko da, bata eta bestearen arteko aldeak agerian utziz. Horrela, segurtasunean eta egonkortasunean oinarritutako eredu fordistaren aurrean, malgutasunean —flexibilidad— eta lanaren prekarizazioan errotzen den eredu berria landu egingo da hurrengo lerroetan zehar.

Halaber, lehengo ezaugarriei «ez-» aurrezkia gehitu behar zaio enplegu eredu hau definitu ahal izateko: ez-egonkortasuna, ez-segurtasuna, etab. Era berean, aurreko homogeneotasuna jada ez da ematen,

eta horren ordez aniztasuna da nagusi lan harremanetan. Beck-en irizpideei jarraituz, egoera berri hau fordismoaren hiru zutabeetan emandako aldaketan ondorioa da, hiru aldaketa hauek lan denboran, lanaren espazioan eta lan arautegian eman direlarik (Beck, 1998: 178).

Honekin jarraituz, enplegu fordistaren oinarri ziren egonkortasuna, denbora osoko lanaldia, mugagabetasuna, bizitza osokoa, eta gorabeherarik gabekotasunaren aurrean, lan merkatuaren aniztasuna da altxatzen dena. Aurreko ezaugarri hauek topa daitezke, baina era berean beste hainbat aspektu eta elementu ematen dira honen baitan. Horrela, kontratu mugagabeak topa daitezkeen bezala, denbora batetarako kontratuak, denbora partzialerako kontratuak, obra bukatu arteko kontratuak, bekadun kontratuak, etab... aurki daitezke ere. Kontratu mota guzti hauek zalantzan jartzen dituzte iraganeko oinarriak; adibidez, jada, kontratu guztiak ez dira 40 ordutakoak edota denbora mugarik gabekoak, lehen ohikoa zen bezala. Orain dena askoz ere konplexuagoa bilakatuko da. Guzti honek desegonkortasuna eta prekarizazioa sortarazi du lan merkatuan. Zentzu honetan, eta Beck-ek ondo azaltzen duenez, gaur egungo «lana hauskorra da, ez du kontratu finkoen segurtasunik, lan denbora beste era batera egituratzen da eta askotan aurreko eros ahalmena mantentzeko lan ezberdinak egin behar dira» (*El País*, 20-10-2001, igandeko gehigarria: 8). Egia da gaur egun, enplegu mota ezberdinak elkarnahasirik agertzen direla, baina egia da ere eredu berria gero eta zabalduegia dagoela lurralde garatuetan. Erresuma Batuetan, adibidez, jada lanpostuen % 52a eredu berriaren arabera kudeatzen da (Castells, 1999).

Lan prekarizazioa neurtzeko irizpidetzat «temporalitatea» hartzen bada oso datu esanguratsuak topa daitezke. Horrela bada, Estatu mailan 1996. urtean sinatutako kontratuen erdiak baino gehiago ez zuen hila-bete bat baino gehiago iraun (Pérez, Güell, Obeso, Recio, de Sebastián, 1997: 23). Ildo berean, baina datu berriago batzuk erabiliz, 2002. urtean sinatutako kontratuen % 76a denbora batetarakoak ziren (*El País*, 28-09-2002: 55). Pentsatu daitekeenez, datu hauek ez dira estatu mailan soilik ematen, gure erkidegoan, esaterako, 2001. urtean sinatutako kontratuen artean % 94,7 prekarioak izan ziren (CES, 2001). Datu hauekin bukatzeko, hona hemen adibide zehatz bat bezain deigarria: Frantziako hiri handi bateko gune komertzial batean hamar hilabetetako epean %100eko lan mugikortasuna eman da (Boltanski eta Chiapello, 2002: 316). Eta noski, hau muturreko kasu bat izan daiteke, baina horrelako dinamikak oso ohikoak izaten dira azkenaldi honetan. Eta horixe da hain zuzen ere eredu berriari buruz aipatu behar den elementu garrantzitsu bat; egia da, lehen esan bezala, enplegu mota ezberdinak ari direla gaur egun ematen lan merkatuan, baina lan kontratu berrien

artean soilik ezegonkortasunean oinarritutako eredu hau da agertzen dena, datu hauen bidez argi ikusten den bezala.

Lan bilakaeraren inguruan ere gauza franko aldatu egin dira. Lehen prestakuntza egokia lortzeko epe motz bat nahikoa baldin bazen lan merkatura igarotzeko, gaur egun lehenengo fase hau denboran zehar gero eta gehiago luzatzen da sarritan. Honi lotuta, lehen normalean prestakuntza fase horretan ikasten zena zen gero pertsona horren enplegurako oinarria. Baina gaur gero eta gehiago ikusten dira, bakoitzaren prestakuntzarekin inongo harremanik ez dituzten enpleguak. Gaur egun, adibidez, edozeinek lanbidez —ez enplegu postuz— bere bizitzan lau aldiz aldatzen duela estimatzen da (Castells, 1999: 33), hau da momentu batean igeltsero izatea, beste batean tabernaria, bestean udaltzaina eta gero lantegi bateko langilea, esaterako. Hau lehen pentsaezina zen eta igeltsero ikasketak egiten zituena betirako izango zen igeltsero; gaur, aldiz, kazetaritza ikasketek ez dute inondik inora bermatzen etorkizunean kazetari lanak beteko direnik; are gehiago kazetaritza ikasi duen igeltserorik topatzea ez da gaur egun ezinezkoa. Zentzu honetan, gazteen artean lanbideetan emandako aldaketak etengabeak dira, egunerokotasunak argi uzten duen bezala. Oso arrunta ei da, gaur egun, zentzu honetan 30 urteko pertsona batek bere ikasketekin inongo harremanik izan ez duen lanbideak edukitzea bere lan ibilbidearen zehar.

Bestaldetik, lan ibilbidea ez da zertan beti norabide zuzenekoa eta aurrerakoa izan behar. Egun batean pertsona batek soldata eta lan baldintza onak izan ditzazke, baina hortik bi hilabetetara enplegu txar bat eduki edota langabezia egon. Bizitzaren epe ezberdinei dagokienez, lehen oso markatuta baldin bazeuden hauen arteko mugak; orain gero eta zehaztugabeagoak dira. Horrela izanik, lehen luzeena zen enpleguaren fasea gero eta txikiagoa da. Alde batetik formakuntza fasea luzatu egin delako, baina baita ere jubilazio epea zenbait kasuetan hazi delako. Lehen enplegu fase hau 20-65 urte tartetean ematen bazen gutxigorabehera, gaur 30-55ean biltzen da gehien bat. Baina ez hau bakarrik, epe batetik besterako igaroaldia gero eta zailagoa da. Gazteen artean, adibidez, oso nabaria da formakuntza fasetik enplegu faserara pasatzeko azaleratzen diren arazoak. Lehen ere, aipatu izan da emakumeek aurreko eredian oso gutxi partehartzen zutela lan merkaturan; orain handiagoa da hauen partehartzea, baina hein handi batean honek ez du suposatuta etxeko lanak ere banatu egin direnik, eta beraz, emakumeak bi lanaldien aurrean topatzen dira eurek nahi izango zuten baino gehiagoetan.

Prozesu guzti honek, halabeharrez, lan baldintzen ustelketa dakar. Desegonkortasunak zuzenean eragina sortarazten du langileen erantzun gaitasunean eta kapitalaren aurrean negoziatzeko berdintasun egoera

ez da inondik inora bermatzen gaur egun. Horrelako eredu batean, lan aldarrikapenak egitea arriskutsuak ere bilakatzen dira. Eta testuinguru honetan, beraz, oso zaila da egoera honi aurre egitea. Gainera, eredu berri honen ondorioak ez dira soilik jasaten lan balditzetan, eguneroko langileen bizitzan ere agerikoak dira aldaketa hauek. Aurreko lerroetan aipatutako lan ibilbideen hausketek zuzenean eragina sortarazten dute bizitzaren bilakaeran. Adibidez, zer zaren galderaren aurrean zaila izango da erantzun egokirik topatzea, baldin eta azken urtean lau edo bost enplegu mota ezberdin izan badira: «atzo hau nintzen baina gaur beste hau» bezalako erantzunak ez dira harritzekoak orain. Era berean, enplegua lehen bizitzaren ardatza baldin bazen; gaur egun, hausketa araua bihurtu denean, zaila izango da egonkortasunik lortzea bizitza eredia aukeratzeko momentuan. Ingurune honetan oso zaila bihurtzen da lotura sozial indartsuak eraikitzea (Sennet, 2000). Pentsatu daitkeenez honek ondorio larriak sortarazten ditu maila sozialean zein psikologikoan eta arazo izugarria da norbanakoak bere bizitza propioa eraikitzerakoan.

Behin baino gehiagotan aipatu izan da enplegu ereduak lotura hestua duela bizitzako hainbat eta hainbat aspektuekin. Lehen egonkortasuna eta segurtasuna berezko ezaugarriak baziren enpleguan, bizitzak ere horrelako zeinuak aurkezten zituen. Eta gaur egun ere, gauza bera gertatzen da, ezegonkortasunean eta segurtasun ezan oinarritutako enpleguaren ondorioz bizitzak gero eta segurtasun gutxiago erakusten dute eta gero eta gehiago «Arriskuaren Gizartearen» (Beck, 1998) aurrean gaudela ematen du. Prozesu honen efektuak oso nabariak dira, esaterako, azkenaldi honetan gizarte garatuetan emandako gizarte bazterketaren zabalkundean, baina ez soilik gizarte bazterketa, gero eta gehiago dira egoera honetan egon gabe, segurtasunik gabe bizi direnak eta bazterketa eta integrazioaren mugan kokatzen direnak, zaurigarritasun —vulnerabilidad— sozial batean kokatzen direnak, eta beraz herritartasunaren mugen kanpokaldean kokatzen direnak edo gutxienez honen mugan

2.4. **Gizarte bazterketa herritartasunaren krisiaren isladatzat**

Ongizate Estatuaren «urrezko garaietan» eta datu makroekonomiko on batzuen magalean, pobrezia bezalako gaiak bigarren maila batetara pasa ziren. Are gehiago, zenbait egilek politika sozial eta enpleguaren egoera zela eta, pobrezia betirako desagertua zegoela ere esan zuten garai hauetan. Noski, errealitatea ez zen hain sinplea eta datu hauen «mirariaren» atzean ikusten ez ziren gertaerak ere ematen ziren, nahiz

eta gehienek beste alde batera begiratu. Horrela bada, 60. hamarkada bukaeratik aurrera asko ugarituko dira pobrezia- buruzko txostenak. Gai hau berriz gizarte zientzien agendan beragertuko delarik. Baina ez hori bakarrik, 70. hamarkadan emandako krisiak ere zeresan handia izango du, eta aipatutako garai hauetan zegoen «itsutasun» hau desgertu eta benetazko errealitatea ikusteko beharra azaleratuko da hemendik aurrera. Izan ere, pobrezia ez zen ikusten, baina egon bazegoen, eta krisiaren ostean ikusten ez zen egoera hau denon aurrean geldituko da eta ezinezkoa izango da honen izaera ukatzea. Zentzu honetan, aipatzekoa da Townsend-en lana, Erresuma Batuko pobrezia- buruz, bere datuen arabera 55 milioetatik 13k pobrezia- ren mugan kokatzen ziren 70. hamarkadan (Townsend, 1979: 893). Alde batera utzita zifra hauen inguruko eztabaida, argi dago mota honetako ikerketek alarma piztu zutela maila sozial zein mediatikoan. Horrela bada, 70. hamarkada bukaeran eta 80. hamarkadaren hasieran pobrezia- k garrantzi handia hartuko du gizarte zientzietan eta agenda politikoaren lehenengo postuetara pasatuko da Europako zenbait lurraldeetan.

Estatu mailan, ikerketa mota hauek 80. hamarkadaren zehar egi- ten hasiko dira. Era honetan, Cáritas eta BBV-k batera egindako txosten baten arabera, momentu horretan 8'5 eta 11 milioi arteko biztanleak pobrezian kokatzen ziren (IOE, 1992: 32). Datu berriei erreparatuz, eta Cáritas-en ikerketa lanekin jarraituz, 800.000 biztanle inguru 90 euro baino gutxiagorekin igarotzen dute hilabetea, 8 milioi pertsona pobrezia mugaren azpitik kokatzen direlarik (*El País*, 23-02-2003: 34). Gure erki- degoa ez da salbuespena eta bertan ere datu oso esanguratsuak topa daitezke. Horrela bada, 1987. urtean egindako azterketa batek era- bat markatuko du pobrezia- ri buruzko ikerketen norabidea hemendik aurrera. Zergatik? Ba, honen arabera euskal familien heren bat kokatzen zelako pobrezian edo honetatik oso gertu (Manzanos, 1992: 20). Datu guzti hauek argi eta garbi erakusten dute arazo honen zabalera eta non- dikanorakoak.

Pobrezia- ri buruzko eztabaidan, garrantzitsua da kontzeptuen ingu- ruko argipenak ematea; eta zentzu honetan, gizarte bazterketa eta po- brezia ondo bereizi behar diren kontzeptuak dira, lan honetan gizarte bazterketaren alde egingo delarik, pobrezia- ren kaltetan. Horrela izanik, gizarte bazterketa kontzeptua lehen aldiz 70. hamarkadan agertuko da, baina benetan gaur egun duen garrantziarekin 90. hamarkadaren zehar azalduko da (Autes, 2004). Era honetan, piskanaka-piskanaka baldin bada ere, eta gehien bat eremu europearrean, gizarte bazterketaren pa- radigma pobrezia- ren gerturapenari gailendu egingo zaio, hobeto egoki- tzen delako gaur egungo aldaketa sozial, ekonomiko zein teknologikoei, besteak beste (Gore, Figueiredo eta Rodgers, 1995). Honen adibidea da

Lisboako Europar Kontseiluan gizarte bazterketa izatea eztabaidagai nagusienetarikoa eta arreta kontzeptu honi ematea eta ez pobrezia.

Pobrezia eta gizarte bazterketaren arteko ezberdintasuna zehaztu baino lehen, interesgarria suerta daiteke azken honen definizio batzuk aztertzea, kontzeptua zehazteko eta honen ezaugarri nagusienak antzemateko. Izan ere, gero eta kontzeptu zabalagoa da eta honen ondorioz gero eta errealtate ezberdinagoak hartzen ditu bere gain (Castel, 2004). Honi erreparatuz, Silver-k hiru ikuspegi ezberdin bereizten ditu gizarte bazterketaren baitan, bakoitza bere jatorri eta hedapen zehatzekin. Lehenengoa elkartasun eredia izango litzateke; bigarrena espezializazioarena; eta hirugarrena monopolioarena. Lehenengo biak ikuspegi europearrekin bat egingo luketeen bitartean, hirugarrenak, eremu anglosaxoiarrean ematen den interpretazioarekin harremanetik agertuko litzateke (Silver, 1995). Eta sailkapen honi lotuta, esan beharra dago gizarte bazterketaren inguruan bi ikuspegi nagusi daudela. Alde batetik, gerturapen europarra, gizarte bazterketa, kohesioa edota elkartasuna bezalako kontzeptuak erabiltzen dituen (García-Laso, 2003: 23). Lehenengo gerturapen honek garrantzia ematen dio gizarte ardurei eta gai hauen inguruko arazoak konpontzeko dauden behar moralei. Bestaldean, ikuspegi anglosaxoiarra kokatuko litzateke, honen eredurik garbiena EEBB-ena izango litzatekeelarik. Kasu honetan garrantzi handia ematen zaio «underclass» (Auletta, 1982; Katz, 1993) edota dependentsia bezalako kontzeptuei. Pobreen egoeraren errudunak eurek beraien direla eta politika publikoen antzutasuna azpimarratzen delarik. Lan honetan zehar lehenengo interpretazioa da jarraitu egingo dena. Alde batetik gure testuingurura hobeto egokitzen den esanahia duelako kontzeptuak; eta bestetik hobeto egokitzen delako herritartasunaren idiearekin.

Horrela izanik, eta zehaztapen hauek aipatu ostean, definizio ezberdinak erreparatuko dira. Lehenengoa, Europar Batzordeak ematen duena izango da, honen arabera gizarte bazterketa «eskubide sozialaz gozatzeko ahalmen eza izango zen, honek maila pertsonal zein sozialen dakarren ondorio lazgarri guztiekin, estigmatizazioa esaterako; bai maila pertsonalean, zein kolektiboan, auzoetan» (Europar Batzordea, 1992: 9). Erakunde ezberdinen definizioekin jarraiki, Gizarte Bazterketaren Aurkako Politiken Behatokiaren arabera, pertsonak gizarte bazterketa pairatzen dute: A) hezkuntzan, formakuntzan, enpleguan edota etxea lortzerako momentuan gabeziak erakusten dituztenean. B) Gizartearen gehiengoarekin konparatuz, euren bizitza independientea eramateko aukera gutxiago dituztenean. C) Eta gabezi guzti hauek denboran zehar irauten dutenean (EE.EE, 1998: 121). Plazaratuko den hurrengo definizioa, Castells-ena da, honen arabera, «bazterketa so-

ziala autonomoki bizitzeko aukerak galerazten duen prozesua izango litzateke, gabezi hau normalean lan merkatuan partehartzeko arazoekin loturik agertzen delarik. Era honetan, gizarte bazterketa, pertsona bat lan merkatutik at, eta kapitalismoan oinarritutako testuinguru batean, gelditzen denean ematen da» (Castells, 1999b: 98). Azalduko den azkeneko definizioa, laburra bezain zehatza da, eta gainera guztiz bat dator bertan googeta honetan jarraituko den ikuspegiarekin. Horrela, gizarte bazterketa kontzeptua erabiltzen da «gaur egungo gizartean bizitza aukera eta herritartasun kontzeptutik at gelditzen diren pertsona eta taldeei buruz hitzegiteko» (Tezanos, 1999: 11-12; Bueno Abad, 2000: 7).

Definizio guzti hauetan elementu amankomun batzuk ikusi daitezke, eta baita kontzeptu honen eta pobrezia-aren arteko ezberdintasunak. Era honetan pobrezia-aren kasuan, estatikotasuna, unidimentsionaltasuna edota baliabide eskasia bezalako ezaugarriak azpimarratzen diren moduan, gizarte bazterketaren kasuan, kontzeptua era dinamikoa, konplexu eta faktore askoren menpean dagoen prozesua bezala ulertzen da. Ezberdintasun hauek oso garbi azaltzen dira honako esaldi honetan: «Pobrezia baliabide materialen eskasia izango zen, gehien bat sarrera ekonomikoak (...) Gizarte bazterketa bere baitan elementu gehiago baten dituen prozesu dinamikoa da eta pertsona bat integrazio soziala zehazten duten eremu kultural, sozial, ekonomiko edota politikotik at gelditzen denean ematen da» (Walker eta Walker, 1997: 8). Azken finean, gizarte bazterketak bere esanahian pobrezia-arena barneratzen du, baina honetaz gain gaur egungo gizartean emandako aldaketekin lotura zuzena duten beste hainbat aspektu ere kontutan hartzen ditu.

Gizarte bazterketa eta pobrezia-aren arteko ezberdintasunak

POBREZIA	GIZARTE BAZTERKETA
Egoera bat da	Prozesu bat da
Izaera pertsonala	Egiturazko izaera
Norbanakoa	Gizarte taldeak
Dimentsio bakarra/Estatikoa	Dimentsio anitzekoa/Dinamikoa
Gizarte industrialia	Gizarte postindustrialia
Pauperizazioa	Zatiketa soziala

Iturria: TEZANOS, J. F. (Ed.) (1999): *Tendencias en desigualdad y exclusión social*, Sistema, Madrid.

Bide honetan, gizarte bazterketa ezin da ulertu isolatuta dagoen errealitate bat bezala, integrazioa/bazterketa binomioak ez du logika estatikorik eramaten, hau da, pertsona bat ez da batetik bestera pasatzen zuzenean. «Continuum» batean oinarritutako prozesua da eta bere baitan gradu ezberdinak ematen dira, bai integrazioari dagokionez zein bazterketari. Gizarte bazterketaren ezaugarriekin jarraiki, dimentsio anitzeko izaera du, bertan faktore ezberdinak elkar eraginean azaltzen direlarik. Zentzu honetan, argi dago enpleguaren auzia garrantzi handia duela; hala ere, honetaz gain beste elementu batzuk ere azpimarratzen dira, hauen artean arlo sozial, kultural edota patologikoan kokatzen direnak. Guzti hauek dira, hain zuzen ere, dimentsio anitzeko izaera ahalbidetzen dutenak.

Honekin bukatzeko, eta gizarte bazterketa eragiten duten faktoreetan zentratuz, Subirats-ek zuzendutako ikerketa talde batek hamar faktore aipatzen ditu: 1) Babes gutxiko enplegua. 2) Gaisotasunak edo ezintasunak. 3) Formakuntza eskasa. 4) Pobrezia handia. 5) Lan domestikoa dela eta esperientziarik ez lan merkatuan. 6) Lan prekarizazioa. 7) Analfabetismoa. 8) Isolapen soziala. 9) Etxean konponduriko prekarizazio ekonomikoa. 10) Etxean pairatutako arazo ekonomikoak (Subirats, 2004). Hauek gainera ez dira banan-banan azaltzen, baizik eta harremanetik eta metatuta. Dinamika honen ondorioz, gero eta gehiago dira gizarte bazterketan erortzeko arriskuan dauden talde sozialak. Hortaz, tradizionalki pobrezian kokatzen ziren kolektiboek beste berri batzuk gehitzen zaizkio, harreman sozialetan gabeziak, baliabide ekonomikoen eskasia edota euren garapen pertsonalean arazoak dituzten pertsonak hain zuzen ere (García Roca, 1993): Desenpleguan daudenak, lan prekarioa dutenak, gazteak, emakumeak, inmigranteak, etab. koka-tu daitezke «saku honetan», beste batzuren artean. Ikusi daitezkeenez ez da talde batere homogeneoa eta errealitate eta faktore ezberdinei erreparatzen diete. Hauxe da, esaterako, gaur egungo gizarte bazterketaren beste ezaugarrietako bat. Ikusten denez, gizarte bazterketa ez da mugatzen etxerik gabekoetan edota drogomenpekotasunean bizi direnetara, etab. askoz ere kolektibo gehiago hartzen ditu. Eta larriena zera da, gizarte integratuarentzat pertsona hauek oso balio gutxi dutela, Castel-en hitzetan, «supernumerarioak» izatera pasatzen dira (Castel, 1997), edo hitz potoloagoekin esanda, askotan gizarte bazterketan murgildutako pertsonak «molestia» bat baino ez dira izaten gizartearen gehiago integratuarentzat.

Baina zalantzarik gabe gizarte bazterketaren ondoriorik larriena integrazio sozialarekiko ematen den desatxekipena da; eskubide sozial, politiko edota zibilen ezeztapen bat ematen delarik hein handi batean (Lister, 1990), edo hitz batekin esanda herritartasunaren ezeztapena. Horrela bada, herritartasuna bilakatzen da integratu eta baztertuen

arteko muga (Tezanos, 1999) eta batzuetan ahalmen integratzaileak baino gaitasun baztertzailerak erakusten ditu herritartasunak (Dahrendorf, 1987). Honi lotuta, eta bukatzeko, gizarte bazterketaren definizio azkar bat eman beharko baten, errazena «ez» hitza erabiltzea izango zen: ez partehartzea, ez eskubiderik, ez aukerarik... Azken finean ez herritartasunarik.

2.5. Herritartasun ahula: prekarizazio laboral eta bitala

Askotan gaur egungo errealitate soziala irudikatzeko integrazio/bazterketa binomioa edota gizarte zatitua edo dualaren ideiak plazaratzen dira. Honen bidez ematen du txanpon bat dagoela eta bata bestearen aldea izango litzatekeela. Hasiera batean gerturapen hau interesgarria izan daiteke ondo azaltzen duelako ze nolako dinamikak ematen diren. Hala ere, eta gai honetan sakondu nahi izanezkerok, hobe da ikuspegi zatitu eta estatiko hau alde batera uztea eta askoz ere dinamikoagoa eta ez hain itxia baten alde egitea. Izan ere, askotan bata zein bestearen mugak ez dira batera ondo bereizten. Guzti honengatik, lan honetan eta gizarte bazterketa aztertzerakoan, «continuum»-aren irudia da aukeratu egin dena, askoz ere ekarpen aberatsagoa eta dimentsio anitzekoa baita eta gainera gradazio ezberdinak berezi daitezke honen baitan. Horrela bada, egia da integrazio eta bazterketa edo eskusioari buruz hitzegin daitekela, baina egia da ere bi hauen artean maila ezberdinak daudela eta gero eta sarriago sailkatzen zailak diren errealitateen aurrean topa gaitzekela. Horregatik, bata eta bestearen artean beste egoera bat kokatu daiteke, zaurigarritasun sozialarena —vulnerabilidad social—, honen bidez konplexutasun puntu bat gehiago sartzen delarik eztabaidan.

Gai honi buruz esan beharreko lehenengo gauza zera da zaurigarritasun soziala ez dagoela bakarrik lotuta pobrezia edota gizarte bazterketari. Gora ere begiratzen du, alegia integrazio eremura eta askotan «egonkorren desegonkortasuna» ematen da honen bidez (Susín, 2003: 171). Beraz, norabide anitzeko dinamika da eta integratuak daudenak ere, zaurigarritasun honen barruan erortzeko arrisku handiak erakusten dituzte. Lan honetan Castel-en ekarpenak jarraituko dira. Bere ustez gaur egungo gizarte egitura hiru zona ezberdin bereiz daitezke: integrazioa, zaurigarritasun egoera eta gizarte bazterketa (Castel: 1990, 1992, 1997, 2004). Ikuspegi honek nahiko jarraitzaile eta eragin handia izan du azken urte hauetan (García-Serrano eta Malo, 1996; Arriba, 2002; EE.EE, 2003).

Horrela bada, herritartasunean emandako desgasteak zaurigarritasun soziala bezala ezagutzen den zonalde baten agerpena ahalbidetu

du. Honen ezaugarririk garrantzitsuenak prekarizazioa eta segurtasun eza dira, desegonkortasuna arau bihurtzen delarik leku honetan eta ez salbuespen. Laparra eta Aguilar-ek egindako definizioaren arabera, zaurigarritasun soziala «prekarioak kokatzen diren zonaldea izango litzateke, nolabaiteko integrazioa badute, baina era ez seguru batean eta askotan denboran bermerik gabekoa» (Laparra eta Aguilar, 1999: 189). Era berean, egoera honetan kokatzen diren pertsonak «lan prekarioa edota bere eguneroko bizitza ordaintzeko arazo oso handiak dituenak izan daiteke, baina baita ere integratuta daudenak eta egoera honetan eroriko direnak koka daitezke honen barruan» (Castel, 2004: 58). Azken finean, talde honetan pertsona asko sartu daitezke, nahiz eta integratuekiko dituzten ezberdintasunak askotan ikusi ez, etxe barruan pairatzen baitira ondorio hauek.

Zaurigarritasun sozial honetan errealitate ezberdin asko topa daitezke: lehen integratuta zegoen pertsona batetik beti baztertua egon dena baina gora egin duena arte. Eta ez hori bakarrik, esan beharra dago, zenbait taldeetan egoera hau gero eta hedatuagoa dagoela, inmigranteak, gazteak edo emakumeen kasuak askotan adibide garbiak izaten dira. Hauxe da agian gaur egungo dinamiken ezaugarri garrantzitsuenetarikoa. Akaso gizarte bazterketa ez da handitu era bortitz batean azken urte hauetan, baina zaurigarritasun sozialaren egoera asko hazi da eta azken prozesu hau ez da gehienetan gizarte bazterketan bukatzen politika sozial edota familiarren «koltxoia» oraindik hor daudelako. Datuei erreparatzea baino ez dago, estatu mailan zaurigarritasun sozialean eta gizarte bazterketaren barruan kokatu daitezkeenak ia populazioaren laurden bat izan daiteke (Aguilar, Laparra eta Gaviria, 1995). Era berean, eta Pobrezia eta Ezberdintasun Sozialen Inkestari jarraituz, Euskadiko populazioaren % 40'3 a enplegu desegonkorra edo langabezia egongo litzateke (Sanzo, 2002: 92). Egia da azken datu hau altuegia izan daitekela eta familia dela eta ez-segurtasun sozial egoera hau ez dela pairatzen; hala ere argi dago errealitate hau etengabe goraka doala eta oso serioa dela.

Testuinguru hau ulertzeko klabeetako bat, gizarte bazterketarekin gertatzen zen bezala, enplegu fordistaren krisian eta ondorioz prekarizazioan eta segurtasun eza oinarritutako beste ereduaren zabalpenean datza. Hortaz, zaurigarritasun fenomenoak ulertzeko ezinbestekoa da enpleguan emandako aldaketa guzti hauek kontutan hartzea. Izan ere, lanaren prekarizazioak herritartasunaren prekarizazioa ere badakar. Horrela bada, egin beharreko lehenengo gauza lan prekarizazio kontzeptu honen zehaztapena ematea da. Agulló-ren definizioa oinarritzat hartuz ezaugarri batzuk bereiztu daitezke (Agulló, 2001: 106): 1) Lanean sorturiko desegonkortasuna (epe laburrak, segurtasun eza, etab.). 2) Langileen

erantzun gaitasun eskasa. 3) Langilearen babes eza. 4) Soldata baxuak eta askotan lanpostu hobeagoak lortzeko ezintasuna. Honen ondorioz, gero eta jende gehiago kokatzen da zaurigarritasun sozial zonalde honetan eta akaso egoera hau hobeto ordezkatzeko duen taldea «working poors»-ena da, hots langile txiroena.

Arestian ikusi den bezala, Ongizate Estatuaren garairik hoberenean enplegu bat izateak integraturik egotea suposatzen zuen, honen bidez herritartasunerako ateak zabaltzen zirelarik. Baina gaur egun, lanaren prekarizazioa dela eta, funtzio hau zalantzan dago eta askotan ez da ematen, ikerketa ezberdinek argi erakusten dutenez (Atkinson, Cantillon, Marlier eta Nolan, 2002). Honen ondorioz, desenplegu tasa baxu batek ez du jada integrazio soziala bermatzen eta askotan datu honek ezer gutxi esaten du gizarte baten kohesioari buruz. EEBB-en adibidea oso esanguratsua da, desenplegu tasa ia parametro teknikoetan kokatu da, baina honek ez du suposatu pobrezia tasen jeitsiera eman denik. Are gehiago pobre eta aberatsen arteko tartea gero eta handiagoa da lurralde honetan. Horrela izanik, enpleguak gaur egun ez du gauza handirik esaten hauen baldintza eta kalitateari buruz. Lehen egonkortasunarekin eta egoera on batekin parekatu bazitekeen ere, gaur egun elementu hauek ezin dira azterketarik gabe ontzat eman. Zentzu honetan, desenpleguarekin bukatu daiteke gaur egun, zenbait zonaldeetan helburu honetatik oso gertu daude esaterako. Baina honek ez ditu prekarizazioaren ondorioak konpontzen, edo ez, inondik inora, erabat. Ikuspuntu honetatik abiatuz, Nazioarteko Lanaren Erakundeak behin eta berriz azken urte hauetan lan duina eta eskubideekin aldarrikatu behar dela azpimarratzen du. Hau dela eta, bere txostenetan jada ez da lanari buruz hitzegiten, baizik eta «lan duinaz» —trabajo decente— (NLE, 2000).

Guzti hau tartean, enpleguaren bertuteak aurreko garaikoak bezalakoak direla esatea, eta hau askotan oraindik entzuten ohi den kontua da, agian gehiegikeri bat izan daiteke. Zentzu honetan, sarritan enplegu tasa igotzeko eta langabezia jeisteko aldarriak «botatzen» dira. Akaso helburu hauek lortu daitezke, baina ez dena esaten da askotan hau lan baldintzen kalterako izango dela. Ikuspuntu honetan kokatzen dira gobernu eta politika publiko gehienak; Lisboako gailurrean (2000) adibidez, 2010. urterako Europar Batasunean langabeziarekin bukatzeko asmoa ezarri zen. Hala ere, errealtateak argi erakusten du helburu hauek jada ez direla errealistak (Schmid, 2002); alde batetik langabeziarekin bukatzea faktore askoren pean dagoelako; eta bestetik, langabeziarekin edonola bukatzeak ez lukeelako zertan onura sozialik ekarri beharko nahitanahiez.

Bide honetan, estatistiketan bakarrik elementu kuantitatiboei jartzen zaie arreta, baina inoiz baino gehiago, eta enpleguari buruz hitzegiten

denean, ezinbestekoa da ere aspektu kualitatiboak kontutan hartzea, kalitatea edota enplegu hauen kobertura bezalako faktoreak kontutan hartzea hain zuzen ere. Horrela ez bada egiten, gaur egun topa daitezkeen zenbait adibide areagotuko dira: EEBB-etan nahiz eta ia langabezirik ez egon, pobrezia gero eta handiagoa da; eta Finlandian, aldiz, desenplegu tasa nahiko altuekin pobrezia askoz ere baxuagoa da. Baina hain urrutira joan gabe, gertuko adibideek ere argi erakusten dute dinamika hau, Bartzelonan egindako txosten baten arabera, esaterako, 1995-2000 urte artean jarduera eta enplegu tasaren hazkundearekin batera txirotasun tasa ere igo egin zen (Mur i Petit, 2003). Adibide hauek ideia bat baieztatzen dute argiro: zenbait enplegu mota pobreziarekin bizi daitezke elkar harremanetan, alegia. Eta honen adibiderik garbiena working poors-ena da.

Kontzeptu hau gehienetan EEBB-etako lan merkatua aztertzeko erabiltzen da, baina azkeneko urte hauetan Europako lan merkatu ia guztietan azaltzen ari den fenomeno da working poors-ena ere. EEBB-etan, adibidez, 1994. urtean, langileen % 7'5a gizarte bazterketan kokatzen zen (EE.EE, 1998: 59). Datu hauekin jarraituz, 2001. urtean langile estatubatuarren % 25ak soldata baxuak zituen, emakumeen kasuan portzentai hau % 30ekoa zen (Bernstein, 2004: 32). Baina esan bezala, errealitate hau ez da soilik EEBBetara mugatzen eta European gero eta working poors gehiago ematen dira. Horrela, European Batasunean, 2001. urtean, 15 milioi working poors ematen ziren, langileen % 8a (Peña-Casas eta Latta, 2004) eta gainera zabaltzen eta handitzen dihoan fenomeno da (McKnight, 2002). Estatuan ere, noski, tendentzia hauek nabariak dira eta ikerketa baten arabera Espainiar Estatuan ematen diren soldatak oso baxuak dira, lurralde garatuen artean soilik EEBBek eta Kanadak izango lukete soldata baxuagoak (EE.EE, 1998: 546). Honi lotuta, estatu mailako langileen % 10ak pobrezia mugatik behera kokatuko litzateke (Peña-Casas eta Latta, 2004), Euskadin nahiz eta oso gertu egon portzentai honetatik, zertxobait behe-rago kokatzen da (INE, 2004).

Working poors-en ezaugarriei dagokienez, enplegua duten eta gizarte bazterketan edota zaurigarritasun sozialean kokatzen diren pertsonak izango lirateke talde honetan sartu beharrekoak. Enplegu prekarioa izango lukete eta noski honek zalantzarik gabe ondorio zuzenak sortzen ditu hauen bizitzan. Hortaz, esan bezala, lan prekarizazio honek prekarizazio bitala ere dakar halaberrez, integrazio soziala eta herritartasun zalantzan jartzen direlarik. López Peláez-ek talde honetan bost multzo bereizten ditu (López Peláez, 1999: 300). Lan honetan egindako sailkapenean egile honen azkeneko bi tipologiak batu egingo dira, eta beste bat gehitu egin da, inmigranteena hain zuzen ere:

1. 40 urte baino gehiagoko langileak: Formakuntza eskasa izaten dute eta langabezi denbora luzeak pairatzen dituzte. Gehienetan enplegu prekarioak lortzen dituzte, sarritan ekonomia murgilduan.
2. 45 urte baino gehiago duten nekazal langileak: Diru sarrera eskas eta irregularrak izaten dituzte.
3. Formakuntza gutxiko emakumeak: Soldata baxuak izaten dituzte eta gainera askotan enpleguari etxeko lana ere gehitu behar zaio.
4. Gazteak: Formakuntza ertain edo altuarekin baina soldata baxu eta kalitate txarreko enpleguak izaten dituzte. Etxebizitza arazo izugarri handia izaten da eta zenbaitetan gurasoen laguntza ekonomikoaren beharrean topatzen dira.
5. Inmigranteak: Bai erregular zein irregularrak. Soldata baxuak izaten dituzte eta inmigrante irregularren kasuan prekarizazioa askoz ere handiagoa izaten da.

2.6. Ondorioa: herritartasunaren hausketa eta krisia

Azkeneko bi puntu hauetan aipatutako bi fenomeno hauek —gizarte bazterketa eta zaurigarritasun soziala— gizarte modernoek koherentsia soziala zalantzan jartzen dute (Bernuz eta Susin, 2003). Working poors-en fenomenoak da agian dinamika hau hoberean islatzen duen prozesua. Hala ere, gero eta gehiago dira integrazio eremuetatik at sentitzen direnak. Zentzu honetan, koherentsia hau ahalbidetzen duen herritartasunak gero eta arazo gehiago erakusten ditu funtzio hauek betetzeko. Castel-ek, gehienetan bezala, ondo azaltzen du bilakaera honen nondiknorakoak: «enpleguan oinarritutako integrazioa ez da gaur egun bizitza errealean babesa edo protekzioa lortzeko bidea, guzti honek gizarte elkartasunean arazo handiak sortzen ditu. Nire hipotesiaren arabera, zerbait hautsi egin da, edo gutxienez krisian dago, babes sozialeko sistema tradizionala» (Castel, 1992: 26). Edo beste era batera esanda, enplegu fordistan oinarritutako integrazioa, Ongizate Estatua eta herritartasunaren bidez kudeatzen zena, egoera larrian dago eta gero eta arazo gehiago daude lehenengo kapituloan ikusi diren balore eta beharrak asetu ahal izateko.

Are gehiago, kasu askotan enpleguak integrazioa bultzatu ordez, bazterketa da ahalbidetzen duena, prekarizazio laboralaren bitartez, hain zuzen ere. Zentzu honetan, kontratazio mota eta herritartasunaren arteko parekotasunak bila daitezke: epe batetarako kontratuak, kontratu prekarioak edota ordu gutxiko kontratuak dauden bezala; gaur egun

ere, epe batetarako herritartasuna, herritartasun prekariora edota ordu gutxiko herritartasuna topa daitezke. Horrela bada, nahiz eta lege mailan —formalki— herritartasuna mantendu, zenbaitetan, kontzeptu honen edukinak lurrundu egin dira pertsona askorentzat, herritartasunak eskeintzen dituen eskubide eta statusaz gozatzea talde anitzentzat ezinezkoa suertatzen delarik. Bide honetatik, herritartasunean emandako zatiketa bati buruz hitzegingun daiteke, bertan gradu eta maila ezberdinak topa daitezkelarik: lehenengo mailako herritartasunak daude, baina baita ere bigarren edo hirugarrenekoak. Eta noski, honek herritartasunaren ahalmenak zalantzan jartzen ditu. Hortaz, gero eta sarriago ikusi daitezke herritartasun ahulak, edo Santos-en hitzetan, «lumpen-herritartasunak» (Santos, 1999: 18); eta kontrakoak, herritartasun sendoak eta bermatzaileak (Moreno, 2002). Herritartasunean emandako mugapen hauek pairatzen dituztenak arazo handiak dituzte gizartean partehartze normal bat gauzatzeko momentuan, bai arlo material zein kultural, sozial edota politikoan. Honek komunitate osoa egiturazko defizit batetara daramatza.

Horrela izanik, herritartasun krisiarekin eredu sozialaren beste hainbat eta hainbat aspektu ere zalantzan jartzen dira. Hots, Ongizate Estatuak, eskubide sozialak eta modernitatearen gizarte hitzarmena bera. Azken finean, herritartasunaren krisia gizarte osoaren krisia ere suposatzen du. Honen aurrean ematen diren erantzunak ezberdinak izaten ari dira, gehienak Ongizate Estatuaren erreformarekin lotuta daudenak. Lan honen tamaina dela eta, ezinezkoa izango da hauetan sakontzea, baina gutxienez era labur batean aipatu egingo dira, hiru erantzun nagusi azpimarratu daitezkelarik. Lehenengoa mundu anglosaxoiarena —workfare— eta beste biak Europa kontinentalean gauzatzen ari direnak —aktibazioa eta errenta minimoak—. EEBB-etan, Workfare ereduari eman zaio garrantzia, bertan azaltzen den idei nagusia zera da eskubide sozialak bereganatzeko lan egin behar dela eta beraz herritartasun eskubideetat gozatzeko nolabaiteko kontrapartida bat ere egon behar dela. European, neurri gehienak aktibazioa eta errenta minimoen aldetik gauzatzen ari gara. Baina bai bata zein besteek arazoak azaltzen dituzte herritartasunaren kontzeptua berreraikitze momentuan, lehen ikusi den bezala zenbaitentzat benetazko herritartasuna lortzea oso zaila suertatzen baita neurri hauen bidez.

Era berean, hiru erantzun posible hauek gabezi garrantzitsuak azaltzen dituzte herritartasunaren aurrean. Horregatik, eztabaida publikoan gero eta indar gehiago hartzen ari den idei bat ere topa daiteke, Oinarrizko Errentarena, alegia. Idei honen arabera enplegua eta sarrera ekonomikoen inguruko nolabaiteko disoziazioa eman beharko litzateke, partziala edota osoa. Eta behar ekonomiko hauek beste edozein eskubi-

de sozial bezala bermatu beharko lirateke. Edo beste era batera esanda, herritarra izateagatik, bizitzeagatik, errenta kopuru bat bermaturik izatea beti, honen bidez herritartasunaren birmoldaketa eta gaurkotzea eman ahal izateko. Beraz, antzeman daitekeenez gaur egungo gizartearen zutabe asko direnak zalantzan jartzen dira eta planteamendu guztiz berritzailea da Oinarrizko Errentarena. Guzti honengatik, hurrengo kapituloaren helburu nagusia da honetan sakontzea izango da, gogoeta eta hausnarketa ezberdinak piztu nahian.

3. kapituloa

Herritartasuna berreraikitzen: Oinarrizko Errenta

3.1. Zer da Oinarrizko Errenta? eta... zer ez da

Oinarrizko Errentari —OE hemendik aurrera— buruzko definizioa eta ezaugarriekin hasi baino lehen komenigarria izan daiteke, lehenik eta behin, ideei honen jatorriaren inguruko zenbait hitz aipatzea. Horrela bada, eta nahiz eta historian zehar antzerakotasunak erakutsi dituzten neurriak izan, OE testuinguru jakin eta zehatz batean jaiotzen da, Ongizate Estatuaren eta enplegu fordistaren krisiarekin batera, hain zuzen ere. Hots, OE-k indarra hartuko du 70. hamarkadaren bukaeran eta, batez ere, 80. hamarkadaren hasieran zehar, gehien bat zenbait ezkerreko alderdi eta pobreziaren inguruko lan-taldeak izango direlarik ideiei honen bultzatzaileak. Gaur egungo OE-ren eztabaidaren aintzindarizat Robert Van der Veen eta Philippe Van Parijs-en artikulo bat jotzen da, izen erakargarri zein probokatzaile batekin idatzitakoa, alegia: «Komunismorako bide kapitalista bat». 80. hamarkadaren erdialdean argitaratutakoa izan zen eta garai horretako mundu akademikoan «txinpartak» sortu zituen artikuloa izan zen⁴. Bertan, besteak beste, OE-ren ezaugarri nagusienak eta sistema kapitalistatik komunistara igarotzeko zituen dohaiak defendatzen ziren (Van der Veen eta Van Parijs, 1988).

Eta sarrera hau egin ondoren, OE-ren definizioa aipatu eta honetan oinarrituz zeintzuk diren ezaugarri garrantzitsuenak aztertuko dira.

⁴ Eztabaida honen nondiknorakoak ezagutzeko: *Zona Abierta* (Oinarrizko Errentari buruzko monografikoa), 46-47. zenbakia, urtarrilak-ekainak, 1988. urte hone-takoa gaztelaniazko bertsioa da, jatorrizkoa 80. hamarkadaren erdialdean argitaratu zen.

Honetarako, Estatu mailan kokatzen den Oinarrizko Errenta Sarea⁵-ren definizioa da jarraitu egingo dena. Honen arabera, «Oinarrizko Errenta, Estatuak eskubide osoko orori edo gizarte horretan bizi denari ematen dion diru-sarrera da, hiritartasun eskubide bezala, honek ez badu ordainduriko lanik egin nahi, kontutan hartu gabe aberats ala txiro den. Beste erara esanda, ez da kontutan hartuko beste diru-iturririk dituen ezta norekin bizi den». Honi jarraiki, elementu ezberdin batzuk dira azpimarratu daitezkeenak:

- «Estatuak»: Honekin erakunde publikoek bultzatutako ekimena izan behar dela azpimarratu nahi da. Estatuak izan daiteke, baina baita ere nazioarte mailan kokatzen den erakunderen bat —kasu honetan gehienetan Europar Batasunari buruz hitzegiten da— edota Estatuaren azpian sailkatzen dena —Erkidego Autonomoak—. Hala ere, bigarren kasu honetan, pentsatzekoa denez, arazoak nahiko handiak izango lirateke, bai maila tekniko-ekonomikoan zein proposamenaren bideragarritasunean.
- «Eskubide osoko orori edo gizarte horretan bizi denari ematen zaion diru-sarrera da»: Proposamenaren izaera indibidual eta unibertsalari erreparatzen zaio honen bidez. Honen inguruan etorkinek OE jasotzeko izan beharko lituzketen eskubideak sarritan azaldu dira eztabaidan. Ildo honetan, proposamen ia guztietan —denetan ez esateagatik— etorkinek ere kobratu beharko lukezela defendatzen da. Etorkin ez erregularren kasuan gauzak askoz ere zailagoak eta konplexuagoak dira, baina gai hau OE-ren eztabaida guztiz gaingaitzen duen «liskarra» izanik bertan ez da sakonean aztertuko.
- «Honek ez badu ordainduriko lanik egin nahi,»: Idei honek iskanbila dezente sortzen du, jendeak «soldata» bat jasoko lukeelako enplegu bat izan ala ez izan edo probokatzailagoa dena, nahiz eta enplegu bat edukitzea nahi ez izatea. Beranduago, eztabaida hau aztertuko da. Hala ere, bakarrik hemen aipatu ezaugri honen bidez enpleguaren mugak gaingitu egin nahi direla eta beste lan motak ere kontutan hartu nahi direla, etxeko lanak edota bolondresen lana, adibidez.
- «Kontutan hartu gabe aberats ala txiro den»»: Baieztapen honek ere, suposatuta daitekeenez, arazo franko sortu ditu eta asko izan

⁵ Oinarrizko Errenta Sareak — Red Renta Básica— ideien alde diharduen elkar-
teia da. Europako Oinarrizko Errenta Sarearen — Basic Income European Network,
BIEN— partaidea da eta azken urte hauetan mintegi, kongresu eta hitzaldi asko antola-
tu eta sustatu egin ditu OE-ren ideia zabaltzeko eta ezagutarazteko asmoekin.

dira honengatik OE-ren kontra jarri direnak. Gai hau ere aurrerago jorratuko denez, ez da hemen gehiegi sakonduko. Hala ere, gutxienez esan beharra dago definizioan OE-k unibertsaltasuna aldarrikatzen duela eta beraz beharrezkoa dela denek jasotzea, beste hainbat eskubide unibertsalekin gertatzen den bezala.

- «Ez da kontutan hartuko beste diru-iturririk dituen ezta noekin bizi den»: Kasu honetan zenbait prestazio asistentzial erakusten duten izaera familiarrarekin hautsi egiten da eta diru sarrera honen izaera indibiduala da defendatzen dena.

Laburbilduz, Oinarrizko Errenta herritar orok bermatuta izango luketen diru-sarrera izango litzateke, herritartasunaren baitan kokatuko litzatekeen eskubidea izango zelarik. Enplegua izan ala ez edota aberatsa ala pobrea den kontutan hartu gabe, beraz herritar guztiek bermatuta izango luketen hileroko soldata bat izango litzateke. Definizioan komentatzen diren ezaugarriak ikusita argi gelditzen da ideï guztiz berritzailea dela OE-rena eta ikuspegi zein kontzeptu asko zalantzan, edo gutxienez eztabaidagai, jartzen dituela. Honenbestez, ez da harritzekoa piztu den zalaparta eta hika-mika, bai mundu akademikoan zein iritzi publikoaren zenbait esparruetan.

Baina OE-rekin jarraitu baino lehen, argipen batzuk egin behar dira kontzeptuaren nondiknorakoak mugatu eta zehazteko. Izan ere, orain arte OE zer den aipatu egin da, baina beharrezkoa da oso, zer ez den argi edukitzea ere. Zentzu honetan, eta izendapenari dagokionez, esan beharra dago askotan hitz asko eta ezberdin erabili direla eta honek arazoak sortu dituela. Horrela, gaztelaniaz zein ingelesez sinonimo anitz topa daitezke. Guzti honek sarritan gaizki ulertuak sortu dituelarik. Baina azken urte hauetan, eta adituei jarraiki, Renta Básica edota Basic Income bezalakoak dira nagusitzen ari direnak. Euskeraren kasuan Oinarrizko Errenta da erabiltzen den kontzeptua. Hala ere, gure esparru honetan arazoa ez da kontzeptuaren izendapen anitza, baizik eta bertan ematen den, eta inondik inora definizioan aipatutako ezaugarriak betetzen ez dituen errenta minimoak Oinarrizko Errenta bezala ezagutzen direla. Hau oztopo nabaria da OE-ren garapenean eta eztabaidan, askotan bi ideï hauek elkarnahastu eta bereizi gabe erabiltzen baitira. Zentzu honetan argiak dira bata zein bestearen arteko ezberdintasunak, hona hemen, besterik gabe, garrantzitsuenak, OE-k eskeintzen dituen sendotasunak azpimarratzen direlarik errenta minimoen aurrean:

1. Errenta minimoek ez dute izaera unibertsalik baizik eta asistentziala, soilik behar ekonomikoak dituzten pertsoeetara zuzentzen dira. Honen bidez, unibertsaltasunak politika sozialetan

dituen abantailak galdu egiten dira. Adibidez iritzi publikoaren aurrean ematen den legitimazioa, denek eskuratzen baitituzte politika sozial unibertsalak eta ez soilik pobreek. Osasuna edota hezkuntza bezalako esparruek argi erakusten dute aspektu hau eta OE-k maila honetan kokatuko litzateke errenta minimoen aurrean. Hortaz, errenta minimoen izaera eremu asistentzian kokatzen bada ere, OE herritartasunaren esparruan zertzen da era zuzen batean.

2. Unibertsaltasunari lotuta, OE jende guztiak kobratuko lukeenez gaur egun errenta minimoak kudeatzeko erabiltzen den administrazio gastuaren zati garrantzitsu bat aurreztu egingo litzateke (Sheahan, 2002: 3). Gaur egungo errenta minimoetan bakarrik diru eskasia erakusten dutenek kobratu dezaketenez, baldintzak betetzeko ezartzen diren kontrolak eta gastuak oso handiak izaten dira. Honekin batera, kontrolak ez lirateke hain zorrotzak izan beharko eta gizarte langintzan diharduten profesionalak bere benetazko lanean zentratuko lirateke, gizarte ekimenean hain zuzen ere (Guinea, 2004). Izan ere, askotan denbora asko kudeaketa lan horretan ematen dute.
3. Aurreko aspektuari lotuta, errenta minimoen kasuan, askotan diru eskasia duenak bere egoera frogatu behar du etengabe. Horrela, ezartzen diren kontrolen bitartez, behin eta berriz pobretasun egoera da ezpimarratzen dena. Honen bidez, ez da arraroa estigmatizazioa edota humillazioa bezalako sentipenak ematea diru laguntza hauek jasotzen dituztenen artean. OE, aldiz, unibertsala denez, pobreek zein aberatsek kobratuko luketenez, arazo hauen aurrean tresna egokiagoa izan daiteke (Sanzo, 2005).
4. Aipatu bezala, errenta minimoak jasotzeko diru eskasia egoera batean kokatu behar da eskatzailea. Baldintza hau ez bada ematen ez du diru laguntzarik jasoko askotan. Honek, zenbaitetan «pobreziaren tranpa» bezala ezagutzen den fenomeno sortzen du, jendeak nahiago izatea diru laguntza kobratzea emplegu bat izatea baino, alegia; argi utzi behar da errealitate hau gutxiengo batek soilik egiten duela. OE-k era egokiago batean egingo lioke aurre honi, diru sarrera hau beste zenbaitekin bateragarria baita. Honen bidez, maila honetan sortu daitezkeen iruzurrei ere erantzun zehatzagoa emateko aukerak daude.

Atal honekin bukatzeko, beraz, eta ikusitakoa ikusi ondoren, argi dago OE-k ez duela inork mutu uzten, alde edo kontrako jarrera izan ala ez. Horrela, definizioak berak zalantza eta galdera asko piztu ditzazke lehenengo momentu batean: Diru sarrera bat jasotzea enplegurik izan

gabe, gainera lan egitea nahi izan gabe? Pobreek eta aberatsek kobratzea?... Galdera hauek guztiz logikoak izan daitezke lehenengo urratsean; baina egia da ere oso proposamen ulergarria eta argia dela eta gaur egun Ongizate Estatuak eta herritartsunak erakusten dituzten gabezieta zuzentzen dela (Noguera, 2001-2002; Moreno, 2003; Pinilla, 2004) era zuzen bezain probokatzailan. Kapitulo honen helburua kontzeptu honetan sakontzea eta aipatutako galderei —eta beste batzuei— erantzun egokia ematea izango da. Horretarako hurrengo pasartean OE-ren oinarri teorikoak aztertu egingo dira, honen jatorri normatiboa argitu nahian.

3.2. Oinarrizko Errentaren justifikazio ideologikoa(k)

Alor honetan aipatu behar den lehenengo ideia OE ikuspegi ezberdinetatik defendatzen dela da. Horrela bada, nolabaiteko «ekumenismoa» (Raventós, 1999) ere ematen dela esan daiteke. Era honetan, neoliberalismotik hasita ezker muturreraino, eremu ideologiko guztietan topa daitezke OE-ren defendatzaileak. Lehenengo ikuspegi horretan kokatuko lirateke, besteak beste, Keith Roberts edota Steiner (1992) bezalako pentsalari libertariano edo «anarko-kapitalistak». Eta bestaldean, gerturapen dialektikoan oinarritutako Gorz (1998) bezalako egile marxistak topa daitezke ere. Beraz, ikusten denez, OE-ren eremu joko zabala eta handia da, eta noski batzuk eta besteen argudioak ezberdinak izango dira. Ekonomia alorrean ere, OE defendatzen duten eskola desberdinetako ekonomariak topa daitezke; horrela, Galbraith, Tobin, Meade edota Simon bezalakoak OE defendatu dute euren bilakaeraren zenbait momentuetan (Clark, 2002).

Azaldutako ekumenismo hau gehienetan elementu baikortzat jotzen da, ideien bideragarritasuna ahalbidetzen duela azpimarratzen delarik, besteak beste. Hala ere, honek ezin ditu ondorio erratuak sortu. Egia da eremu ideologiko ezberdinetatik OE defendatzen dela, baina egia da ere gaur egungo ekarpen eta defendatzaile ia guztiak —edo gutxienez gehienak— ezkerrean munduan kokatzen direla. Honetatik at salbuespen gutxi daude, horietatik bat, adibidez Frantziako UMP-ko zentru-eskuineko alderdiko diputatua den Christine Boutin-en proposamena da, honen arabera pobrezia aurre egiteko 300 euroko hileroko OE tresna interesgarria izango litzateke Frantziar Estatutko herritarrentzat (Boutin, 2003). Baina ezkerrean bueltatuta, honen barruan OE defendatzeko fundamentazio normatibo gehienak liberal-igualitarismoan eta errepublikanismoan oinarritzen dira (Noguera, 2005). Lehenengo ikuspegiaren barruan Van Parijs-en «Askatasun Errealaren» (1996) teoria nagusitzen da besteen aurrean. Honen arabera, eta lehenengo kapituloan jada ikusi den beza-

la, eskubide formalak gauzatzeko oinarrizko baliabide material batzuk ere bermatu behar dira, horrela bakoitzak askatasun errealez gozatzeko (Van Parijs, 2002) eta giza duintasuna sendotzeko (Van Parijs, 2000). Errepublikanismoaren kasuan helburua ez da askatasun formalak segurtatzea baizik eta interferentziarik edo dominaziorik gabeko askatasuna martxan jartzea (Raventós, 1999; Raventós eta Casassas, 2003; Casassas, 2005) eta honetarako «herritartasun aske bat sotzea» ezinbesteko baldintza da (Raventós, 2002b: 75). Zeregin honetan OE-k elementu oso garrantzitsua izan daiteke errepublikarrentzat (Raventós, 2002).

Aipatutako guzti honetatik abiatuta ezin esan ezkerre gaur egun OE-ren aldekoa denik era homogeneo eta oso batean. Horrela bada, ezkerreko pertsonen artean asko dira ere OE-ren kontrakoak, gehien bat enpleguaren dohaiak defendatzen dituztenen artean. Zentzu honetan, OE-ren kontrako hauek eztabaidaren muturrak lan eskubidea eta Oinarrizko Errentaren artean dauden kontraesanetan kokatzen dituzte (Moreno, 2003: 312-329; Mitchell eta Watts, 2004). Eta zehazki ikuspegi hau oso hedatuta dago sindikatuen barruan. Iritzi honetakoak dira adibidez, Estatu mailan sindikatu nagusiak diren CCOO eta UGT (Pinto, 2005: 4). Sindikatu hauentzat OE-k zalantzan jarri ditzazke lan munduan emandako lorpenak eta lan prekarizazioa sustatu dezake. Hala ere, guzti honen inguruan, eta ikuspegi kontrajarriak tarteko, esan daiteke ezkerreko alderdi zein sindikatuetan gero eta gehiago hitzeging eta eztabaidatzen dela OE-ri buruz (Vanderborght, 2004).

3.3. Oinarrizko Errentaren eredu ezberdinak

Orain arte OE-ren definizioa, ezaugarriak eta oinarri teorikoak ikusi izan dira. Oraingo atal honetan, aldiz, aipatutako azken elementuari, kultura politikoari edo testuinguru sozialari lotuta, gaur egun OE egikaritzeko nagusi diren eredu garrantzitsuenak aipatuko dira. Horretarako, bost eredu azpimarratuko dira:

1. Jatorrizko Oinarrizko Errenta eredu: Kasu honetan hasierako definizioan aipatzen diren ezaugarriak jarraituko lirerateke, hau da, herritar guztientzako baldintzarik gabeko hileroko diru-sarrera bat bermatzea. Hala ere, esan beharra dago gaur egun aditu gehienek beste eredu batzuen alde egiten dutela, gehien bat lehenengo honek bideragarritasunaren mailan dituen arazoengatik.
2. Oinarrizko Errenta unibertsala baina partziala: Kasu honetan neu-riaren unibertsaltasunaren beharra aldarrikatzen da, baina hau egikaritzeko egon daitezkeen arazoak direla eta, zenbaitetan diru

- kopurua pobrezia-aren mugaren azpitik egotea onartzen da, hasierako momentu batean behintzat. Iritzi honetakoak dira, adibidez, Philippe Van Parijs eta beste zenbait egile (Van Parijs, 2001; Van Parijs, Jacket eta Salinas, 2002; Mercader, 2004).
3. Partehartzerako Errenta: Hirugarren eredu honetan Anthony Atkinson ekonomilari britainiarraren ekarpenak dira nagusi (Atkinson, 1995, 1996). Kasu honetan OE gizarte erabilpena —utilidad social— duen ekintza batetara baldintzatuta egongo litzateke. Edo beste hitzetan esanda, norbanakoak OE bermatuta izango du, baina ordainetan, gizartean partehartu beharko du, enplegu baten bidez edota beste edozein lan motaren bidez, beraz workfare ereduarekin konparatuz, baditu ezberdintasunak. Era berean, lanen bat egiten ez duena ez luke OE jasoko. Hala ere, zaila ematen du antzematea nola neurtuko litzatekeen pertsona baten lana: bere semea edo alaba zaintzen duen aita edo ama baten lana nola neurtu daiteke, zeintzuk izango dira erizpideak OE jaso ahal izateko? Egia esateko erraza denik ez du ematen eta akaso baldintza honek konpontzen dituenak baino arazo gehiago sortu ditzazke.
 4. «Stakeholder Society»: Gaztelaniaz «Sociedad de Partícipes» bezala itzuli da, baina euskeraz gaur egun ez dago kontzeptu hau definitzen duen hitzik. Eredu honetan Ackerman eta Alstott estatubatuarrek dira nagusi. OE unibertsala eta baldintzarik gabekoa izango zen, baina diru kopuru guztia aldi bakarrean —edo bizpahiru aldietan— ordainduko zen eta ez hilero. Bi egile hauen arabera herritar bakoitzak 21 urte betetzerakoan 80.000 dolar jaso beharko lituzke berak nahi duen bitzita proiektua garatu ahal izateko (Ackerman, 2002; Ackerman eta Alstott, 2004). Eredu honek erakusten dituen arazoen artean, diru kopurua ondo ez erabiltzea edota haur pobrezia-aren aurrean erantzunik ez duela ematen dira, besteak beste. Era berean, esan beharra dago antzerakotasunak dituzten zenbait neurri jada Erresuma Batuan zein EEBBetan martxan jarri direla. Erresuma Batuan, adibidez, Child Trust Fund izeneko neurriak haurtzarorako nolabaiteko inbertsio kontuak sortu ditu. Honen arabera, ume britainiar bakoitzak jaiotzean diru bat jasotzen du kontu batean, eta urtero-urtero Estatuak diru kopuru bat gehitzen dio eta senideek ere badute aukera kontu horretan diru gehiago sartzeko; gaztea adingabea den bitartean ezin du ikutu kontua.
 5. Zerga negatiboa: Ikusiko den azkeneko eredua zerga negatiboarena da —impuesto negativo, negative income tax-. Proposamen hau ezaguna egin zuena Milton Friedman izan zen 60.

hamarkadaren zehar. Eredu hau fiskaltasunaren bidez kudeatzen da. Horrela izanik, zergak ordaindu behar ez dituen diru kopuru bat ezartzen da —minimo exentoa-. Diru kopuru kantitate hau gainditzen duenak, ezartzen diren zergak ordaindu beharko ditu; baina, ez dena ailegatzen zifra horretara, diru kopuru jakin bat jasoko du gutxieneko kopurura ailegatu ahal izateko. Zergak ordaintzen ez duen diru hori izango litzateke, hain zuzen ere OE, eta zerga aitortenaren bidez herritar guztiek berमतuta izango lukete diru kantitate hori. Friedman-en ereduari zerga negatiboa Ongizate Estatuarekin bukatzeko tresna bat zen (Ayala, 2000: 60). Gaur egungo proposamen gehienetan, aldiz, Ongizate Estatuari sendotzeko baliabidea izango litzateke. Eredu honen defendatzaileentzat zerga negatiboaren bidez OE-ren jatorrizko ereduaren helburuak lortzen dira, baina kasu honetan bideragarritasun ekonomikoa askoz ere handiagoa da, era simple eta errazago batean egingo bailitzateke erreforma (Block, 2000). Izan ere, bide honetatik bakarrik diru kopurua jasoko lukete benetan minimo exentotik behera gelditzen direnak. Honen gainetik daudenei, aldiz, OE-k ordaindu behar litzuketzen zergetan eragina izango luke, baina ez lukete zuzenean OE-rik jasoko. Alegia, OE baino diru gehiago kobratzen dutenei OE deskontatu egingo zaie errenta aitortenaren, baina ez zaie zuzenean emango. 70. hamarkadaren zehar EEBBetako zenbait estatuetan mota honetako programa experimentalak jarri ziren, baina ez zuten luze iraun eta hauen ondorioak ere ez ziren batere argiak izan, ona zein txarrerako. Azkenik, esan beharra dago azken urte hauetan planteatzen ari diren OE proposamenen artean zerga negatiboa nagusienetakoa dela bai nazioartean (De Beer, 2002; Mitschke, 2002; Moffit, 2003) zein estatu mailan (Sanzo, 2001; Sanzo eta Pinilla, 2004).

3.4. Oinarrizko Errentari egindako galdera eta kritika nagusiak

Aurreko pasarteetan ikusi den bezala, asko dira OE-ri buruz egin daitezkeen galderak eta asko ere egiten zaizkion kritikak, bai eremu ideologikoaren alde batetik zein bestetik. Galdera eta kritika hauetako asko behar-beharrezkoak dira kontzeptuaren garapen egokia eta hedapena eman dadin eta hauen erantzunaren arabera egongo da OE-ren etorkizuna eta arrakasta. Baina era berean, sarritan ere, fundamentu gutxiako kritika eta galderak sortzen dira, ezjakintasunean oinarrituta; edo okerrago dena, nahitazko helburu eta interesak izkutatzen dituztenak. Kasu honetan bai batzuei zein besteei erantzun egokia ematea izango

da helburua, horretarako zalantza nagusienak jorratuko dira atal honetan OE-ri buruzko ezagutza handitzearen asmoarekin.

3.4.1. *Onargarria al da lan egin gabe dirua kobratzea?*

Galdera hau askotan OE-ri egiten zaion lehenengo erreparua izaten da, lan merkatuan partehartu gabe diru kopuru bat jasotzea onartezina dela aldarrikatzen delarik, askotan San Pablo-ren esaldi biblikoa oinarritzat hartuz: «lan egiten ez duenak, jan ez dezala». Ikuspegi honen arabera gizartean eman behar den erreziprozitatea galdu egiten da (Galston, 2000; Anderson, 2000) batzuk besteengan biziko lirakekeelako eta aipatutako erreprozitatea gizarte modernoetan enplegua eta lan merkatuaren bidez ematen delako. Kritika hau oso hedatuta dago iritzi publiko osoan zehar eta are eta nabariagoa izaten da ezkerreko pentsamendua dutenen artean, ezin baitaiteke ahaztu enplegua ezkerren oinarrietako bat izan dela historikoki.

Honen aurrean esan beharreko lehenengo gauza ikuspegi guztiz enpleguzentrikoa dela da. Enplegua lan mota bat da, baina ez lana bere osotasunean. Horrela bada gauza bat da lan bat izatea edo egitea eta beste bat enplegu bat izatea. Horrela bada, etxeko andre baten lana edo bolondres batena lana ez direla eta horregatik OE ez luketela kobratu behar gehiegizko baieztapena dirudi gutxienez. Zentzu honetan, esan beharra dago erreprozitatea lan mota guztietan ematen dela era argi batean eta ez soilik enpleguan. Azkenik, kritika honekin bukatzeko eta susmoa bakarrik izanik, arraroa suertatzen da argudio hau pobreentzat bakarrik erabiltzea baina ez oso aberatsak direnentzat nahiz eta hauek askotan ere bizi lan merkatuan partehartu gabe. Izan ere, kritika hauei jarraiki, San Pablaren hitzek berdin balioko lukete kasu baterako zein besterako, pobre zein aberatseentzako, alegia.

3.4.2. *Jendeak lan merkatuan jarraituko al luke?*

Hauxe da ere sarritan OE-ren kontra egiteko erabiltzen den beste argudioetako bat. Honen arabera, OE emango balitz jendeak ez luke lan merkatuan parte hartuko eta nolabaiteko alferkeria eta dependentziaren kultura sortuko litzateke (Van Donselaar, 1998; Bergmann, 2006). Kritika hau ez da soilik OE-rekin azaltzen eta entzunak izan dira ere azken urte hauetan errenta minimoen kontra modu honetan egindako kritikak. Egia esateko, eta azken neurri hauen ondorioak ikusita ez du ematen horrelako dinamikarik sortu egin denik gaur egungo lan mer-

katuetan. Zentzu honetan, ezin ahaztu gizarte guztiz konsumistetan murgilduta gaudela, eta honek diru gehiago eskatzen duela une oro. Era berean, ezin ahaztu ere OE-ren kopurua nahiko eskasa izango zela, pobreziaren mugaren pare gutxigorabehera. Beraz, guzti honetatik jendeak bere enpleguak utziko dituela eta OE-taz bizi izango dela gehiegizkoa ematen du. Akaso, zenbaitek dauzkaten lan prekarioak utziko dituzte eta beste lan mota batzuetara dedikatuko dira, baina hauek ez dira izango inondik inora gehiengoa; gainera, mugimendu hauek ez lirateke gizartearentzat zertan ezkorrak izan beharko; pertsona batzuk lan merkatua utzi eta lan zibikoan murgilduko balira, adibidez, guztiz gauza osasungarria izango litzateke gizartearentzat (Zubero, 2000b, 2001; Noguchi eta Lewis, 2004).

3.4.3. *Aberatsek ere kobratuko dute? Neguriko bizilagunek ere?*

Hasierako momentu batean aberatsek ere OE jasotzea jasanezina eman dezake. Nola eman diru kopuru bat jada asko duenari? Zergatik ez diru hori pertsona txiroenarako erabili? Egia esateko galdera hauek agertzea logikoa da eta agian ere beharrezkoak, baina ezin ahaztu OE neurri unibertsala dela eta beraz denek berrmatuta izan behar dutela. Gaur egun ere eskubide sozial unibertsalak mota honetakoak dira, hezkuntza edo osasuna pertsona guztien eskubideak dira eta hortaz aberats zein pobreek segurtatuta dituzte. Eta agerikoa denez, bi kasu hauetan inork ez du defendatzen aberatsak zerbitzu hauetatik at gelditu behar direnik.

Baina atal honetako galderari erantzunez, neurri bat unibertsala izateak ez du gauza handirik esaten bere moralitasunari buruz. Hezkuntza edota osasuna zergen bidez bideratzen diren bezala, ez du ematen inondik inora erokeri bat OE ere zergen bidez gauzatzea. Zentzu honetan, zergen norabideak zehaztuko du neurriaren justutasuna. Horrela, nahiz eta aberatsek OE jaso, gero sistema fiskala progresiboa baldin bada eta diru dezente ordaintzen badute zergetan, hau ez da izango injustoa. Are gehiago, gaur egungo OE proposamen gehienak zerga negatiboaren bidezkoak dira eta guztietan progresibotasuna oinarriko elementua da; eta lehen ikusi bezala aberatsei OE bere zerga kopurutik kenduko zitzaie, honen arabera azkenean zuzenean ez lukete jasoko OE-rik. Beraz, aberatsek ere jasotzea ez du ematen oso kritika sendorik denik, eta gainera unibertsaltasunak funtzio oso baikorrak dituzenez neurriaren ezagutza eta arrakastan, ez da gehiegi ere esatea unibertsaltasun honek bere biziko baldintza dela OE etorkizunari buruz hitzegiten denean.

3.4.4. *Oinarrizko Errenta eta lan merkatua*

Askok eta askok defendatzen dute Oinarrizko Errenta baten bidez lan merkatuaren prekarizazioa areagotu eta handituko litzatekeela. Horrela bada, batzuentzat OE-ren bidez soldaten jeitsiera eman eta eskubide sozialen urraketa ahalbidetuko lirateke. Esan beharreko lehenengo kontua askotan ondorioak antzematea zaila dela da. Horrela izanik, mota honetako gertaerak eman daitezke baina era berean kontrako mugimenduak ere, soldaten igoera ematea langileek OE-ren bermea dutelako, alegia. Beraz, politika-fikzioaren munduan sartzerakoan, tentuz ibiltzea behar-beharrezkoa da. Egi borobila dena da gaur egun jada aipatutako ondorio horiek ematen ari direla da, nahiz eta OE ez eman. Hortaz, OE egikaritzeak ez luke honetan gauza berri handirik ekarriko eta aukerak bi izango lirateke: edo aurretik hasitako bidea sakontzea eta gauzatzea edota prekarizazioaren aurrean tresna egokia eta baliogarria izatea. Baina lehen esan bezala, froga praktikorik egin arte zaila da zeintzuk izan daitezkeen ondorioak antzematea.

Bestetik ere ezin alde batera utzi egiten ari diren proposamen gehienek ez dutela eskubide sozialen kontra egiten baizik eta alderantziz. Are gehiago, egile askorentzat, OE lan prekarizazioari aurre egiteko tresna garrantzitsua izan daiteke (Standing, 1992; Raventós eta Casasas, 2003), nolabaiteko negoziatzeko ahalmena ematen die eta langileei enpresarien aurrean, gaur egun ematen ez dena hain zuzen ere. Ildo beretik, asko dira OE-ren bidez lan malgutasuna sostengarria izan daitekeela defendatzen dutenak, nolabaiteko segurtasun sozial eta ekonomikoa lortuz definizioz malgua den sistema ekonomiko batean (McFate, 2000; Pinilla, 2004; Harms, 2004). Honen inguruan, eta errepikatzeko arriskua alde batera utzita, argi dago OE-k sortu ditzazkeen zenbait ondorio gaur egun oraindik zehaztezinak direla eta honen aplikazioa eman arte zaila izango dela hauen ezagutza izateak.

3.4.5. *Oinarrizko Errenta eta emakumeak*

Zenbait ikuspegi feministetatik OE kritikatu izan da emakumeek lan merkatuarekiko duten diskriminazioa areagotu daitezkelako (Robeyns, 2001; Bergmann, 2006), eta emakumeak betirako etxeko lanetan gelditu daitezkelako. Egia da horrelako ondorioak eman daitezkeela, eta adibidez Erresuma Batuko Working Tax Credit neurriarekin horrelako eraginak eman dira bikotearekin bizi diren emakumeen artean, hala ere honi aurre egiteko neurriak badaude eta hauek landu behar izango lirateke —pizgarrien bidez gehien bat— fenomeno hau ekiditeko. Gainera

ezin ahaztu OE bere definizioaren arabera neurri «itsu» bat dela emakumeen aurrean, ez da «Etxekoandreen Soldata» bezalakoa. Bigarren kasu honetan bakarrik kobratuko zen etxean lan egiteagatik, baina OE-ren kasuan lan merkatuan partehartuzkero ere kobratu egiten da. Zentzu honetan gainera, ezin ahaztu emakumeek pairatzen duten diskriminazioa ez dela inondik inora konponduko neurri bakan edota isolatu baten bidez. Horrela, arazo honi konponbidea emateko maila eta alor ezberdinetan lan koordinatua egin behar da.

Guzti hau esan ondoren, beste zenbaitek OE-k funtzio baikorrak izan ditzazkeela emakumeen egoeraren aurrean defendatzen dute. Lehenik eta behin, errenta banaketan elementu orekatzaileak sartu ditzazke OE-k, inork ezin baitu izkin batean utzi normalean errenta handienak gizezkoen esku daudela, bai gizarte zein familia barruan. Era berean, pertsona guztiek diru sarrera bat bermaturik izanik, gabezi ekonomikoengatik bortxakeria edota egoera deserosoak aguantatzen dituzten emakumeek baliabide handiagoak izango lituzkete euren independentzia bermatzeko. Hala ere, ezin pentsa OE arazo guztientzako soluziobidea izango denik, horretan lagundu dezake, baina ez gaitza guztiz sendatu.

3.4.6. *Oinarrizko Errenta eta inmigrazioa. Sortuko al luke «deia» efekturik?*

Inmigrazioari buruz hitzegiten bada, azaltzen den lehenengo zalantza funtsezkoa da: etorkinek OE kobratu behar al dute? Kasu honetan proposamen gehienek —denek ez esateagatik— argi uzten dute etorkinek ere kobratu beharko luketela OE. Gizartearen aberastasuna sortu eta zergak ordainzen dituzten bezala, logikoa baita ere aberastasunaren parte batetaz gozatzea. Beste eztabaida mota bat etorkin ez erregularrarena da, baina hau OE-ren mugak gainditzen dituen gai bat da eta argudioak beste eremu batzuetan kokatzen dira.

Askotan ere OE-ren kritikoen artean OE-k «deia» efektua sortuko lukeela entzuten da (Galston, 2000). Kritika hau sarritan erabiltzen ohi da ez soilik OE-rako baizik eta beste hainbat politika sozial kritikatzeko. Errenta minimoen sorrera eman zenean ere mota honetako argudioak erabili ziren, baina datuek argi erakutsi dute horrelakorik ez dela ematen eta benetako «deia» efektua beste parametro batzuetan kokatzen dela, Ipar eta Hegoaren arteko ezberdintasunetan, esaterako. Honekin jarraituz, inori ez zaio bururatzen «deia» efektuarekin bukatzeko lurralde garatuen aberastasunarekin bukatu behar denik, beraz nahiko demagogikoa ematen du mota hauetako kritikak egitea.

3.4.7. *Oinarrizko Errenta soilik lurralde garatuentzako proposamena al da?*

Ezin ukatu OE-ren filosofia eta oinarri teoriko zein praktikoak hobeto egokitzen direla lurralde garatuetara, eta gehien bat Europara (Pérez Muñoz, 2005). Baina Iparraldetik urruti gelditzen diren zenbait lurraldeetan ere mota honetako proposamenak eman dira. Gehienak Hego Amerikan kokatzen dira, Argentinan (Lo Vuolo, 2001; Barbeito eta Lo Vuolo, 2002) edota Brasilen (Suplicy, 2002). Azken honetan adibidez, Kongresuak 2005. urtean OE emateko proposamena onartu egin du (Ozanira, 2004). Era berean, Hego Afrikan (Bhorat, 2002) edota Timor-en ere proposamen honen inguruko eztabaidak suspertzen ari dira. Zentzu honetan, kontutan hartu behar da horrelako lekuetan edozein OE-k izugarriko ondorioak izango litzukeela, nahiz eta kopuru gutxikoa izan.

Azken honekin lotuta eta gehien bat beste globalizazio alternatiboa defendatzen duten taldeek bultzatuta, nazioarteko OE bat defendatzen ari da azken urte hauetan. ATTAC elkarteak, adibidez, Tobin Tasaren bidez kudeatuko litzatekeen OE mundial baten alde egin du bere azken aldarrikapenetan. Maila honetan ere zenbait proposamen topa daitezke, Frankman-ek, adibidez, urtero 1000 dolarreko OE ezartzea planteatzen du; finantziazioa mundu mailako %10 aberatsenei ezarritako zergen bidez gauzatuko litzateke (Frankman, 2004). Van Parijs-ek ere bere azkeneko ekarpenetan nazioarteko OE bati buruz hitzeging du (Van Parijs, 2002b).

3.5. **Oinarrizko Errentaren bideragarritasuna**

Bideragarritasunari buruz hitzegiten denean, eta politika publikoetan are gehiago, beti bi bideragarritasun motei buruz hitzegin behar da. Alde batetik soziala eta politikoa egongo litzateke, edo beste hitzekin esanda, ideiak iritzi publikoaren barruan errotzeko eta eragina izateko dituen aukerak geroago agenda politikoan sartu ahal izateko. Eta bestetik, bideragarritasun ekonomiko eta teknikoak legoke, azken hau guztiz elementu funtsezkoa izanik; horrela, proposamen bat interesgarria eta aproposa izan daiteke, baina honetazgain errealista eta aplikagarria ere izan behar da ezinbestez, bestela bere etorkizuna guztiz baldintzatuta egongo da.

3.5.1. *Bideragarritasun soziala eta politikoa*

Honen inguruan esan beharreko lehenengo aspektua eta OE-ri lotuta, proposamena argia eta erraza bezain errealista eta serioa izan behar

dela da. Zentzu honetan errealitatetik guztiz at dauden azalpenak eta definizioek oztopoak baino ez dizkiote jartzen ideia-aren garapenari. OE Estatuko Aurrekontu Orokorrean dauden partiden beraldaketaren bidez lortuko dela esatea (Iglesias, 1998: 155) ildo honetako adibide argi bat da. Izan ere, gastua oso handia izango litzateke eta arlo sozialean erabiltzen den diru gehiena OE-ra zuzendu beharko litzateke, guztiz zaila eta desiragarria ez den proposamena alegia. Guzti honengatik, planteatzen diren saiakera ezberdinak eraikitzaileak, sinisgarriak eta bideragarriak izan behar dira eta gizartean nagusi den testuingurua kontutan hartu beharko ditu. Norabide honetan, diskurtso landua osatu behar da ikuspegi demagogiko batetik egin daitezkeen kritikei aurre egin ahal izateko. Honek ez du esan nahi kritikarik onartzen ez denik edota kritika guztiak demagogikoak direnik. Izan ere, aipatutako kritikak eta beste asko, behar-beharrezkoak dira OE-ren garapena zein egituraketarako.

Gizartean ideia honek izan dezakeen zabalpenean, argi eduki behar da hasiera batean OE-ren kontrakoak dezente izan daitezkeela honen barruan. Are gehiago, zenbait ikerketek diotenez proposamen honen muinean dauden hainbat eta hainbat ideia ez dira batere erakargarriak gizartearen sektore batzuentzako (Pioch, 2000) eta beraz askorentzat ez da ideia desiragarria izango (Elster, 1988). Horrela bada, Alemanian egindako ikerketa batek argi erakusten zuen gehiengoak ez zegoela ados diru-sarrera bat lan merkatuan partehartu gabe jasotzearen ideiarekin (Liebig eta Mau, 2002). Ildo honetan ere, Suedian eta Finlandiako biztanleek OE-ren aurrean zailtasun anitz ikusten dutela ondoriozta daiteke beste ikerketa batean (Andersson eta Kangas, 2002). Datu hauei erreparatuz, zenbaitek Atkinson-en Partehartzerako Errentaren alde egiten dute, herritarren lehenetsuneetara hobeto egokitzen delako (Goodin, 2000, 2003). Hau ikusita, argi dago bideragarritasun sozial honen barruan gizartearen zati garrantzitsu bat OE-ren alde jartzea berebiziko baldintza dela. Honen aurrean, eta Offe-k ondo planteatzen duen bezala OE-ren defendatzaileek galdera honi erantzun beharko liokete bere buruari ideia garatu eta zabaldu ahal izateko: «Zergatik hainbeste jende azaltzen da hasiera batean Oinarrizko Errentaren kontra?» (Offe, 2000). Galdera honi emandako erantzunak garrantzi handia izango du, honen arabera egongo delarik proposamen honen etorkizuna.

Zentzu honetan, badira gaur egun jada, OE gizartean errotzeko aurkeztutako lan-ildoak edo jarraibideak. Shafarman-entzat, esaterako, urrats ezberdinez osatutako estrategia da gailendu behar dena. Lehenengo momentu batean ideia zabaltzeko galdera erakargarriak planteatu beharko lirateke. Bigarren pausuan eztabaida piztu eta OE-ren alde dauden jendea sortu beharko litzateke. Hurrengo fasean, OE-ren aldekoek honen inguruko ezagutza egokia lortu beharko lukete ideia-aren ga-

rapena eman ahal izateko. Ondoren, pertsona eta erakunde ezberdinen arteko aliantzak bultzatu beharko lirateke, OE-ren aldeko mugimendu sendoa eraikiz. Azkenik, ideia iritzi publikotik agenda politikora pasa beharko zen (Shafarman, 2002). Egia da eredu hau EEBB-etako gizartearentzat eginda dagoela, hala ere badira bertan kontutan hartu beharreko hainbat eta hainbat elementu, horregatik hain zuzen ere islatu da kapitulo honetan mota honetako adibidea.

Iritzi publikoa eta agenda politikoaren muga horri dagokionez argi utzi behar da ideia bideragarritasuna ahalbidetzeko ezinbestekoa dela alderdikeriak edota jarrera sektarioak alde batera uztea. Hau horrela egiten ez bada, argi dago proposamenaren arrakasta mugatua eta txikia izango dela. Honengatik, eraiki beharreko diskurtsoak irekiak eta ez baztertzailak izan behar dira eta adostasuna bilatu behar dute. Bide honetan, seguraski ideia bideragarritasun aplikaziorik ezinezkoa izango da eta gradualismoan eta malgutasunean oinarritu beharko da halabeharrez, honen bidez gizartearen zein ordezkari politikoen babesa lortu ahal izateko. Beraz, eta laburbilduz, bideragarritasun soziala eta politikoari buruz esan daiteke iritzi publikoa eta agintarien onarpenaren arabera egongo dela (Bellví, 2005) eta honetan dogmatismoak eta joera heretsiak uztea behar-beharrezkoak diren elementuak izango direla nahitahi.

3.5.2. *Bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa*

Esan bezala, bideragarritasun sozialarekin batera, ekonomikoa ere eztabaidaren ardatzetako bat bada, azken honen garrantzia, suposatu daitekeenez, oso handia delarik OE bezalako ideiei batentzat. Izan ere, definizioari erreparatzen bazaio argi gelditzen da OE aplikatuko balitz gastu publikoa dezente igo egingo zela, edo gastu hau beste era batean bantatu beharko zela. Lan batzuen arabera, adibidez, Euskadiko Autonomi Erkidegorako bere Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 30'2a beharko zen (Sanzo, 2005: 5) eta Estaturako %39'2a (Iglesias, 2002: 122), definizioan azaltzen den OE gauzatu ahal izateko. Zifra hauek ezinezkoak dira ez bada sistema ekonomikoaren egiturazko beraldaketa ematen. Hau ikusirik, eta lehen aipatu bezala, OE-ri buruzko proposamenak errealistak izan behar dira eta gastua bezalako elementuak kontutan hartu behar dituzte, gutxienez bideragarritasun ekonomikoaren froga gainditu nahi badute. Horrela izanik, OE lortzeko edozein proposamen bere testuinguru eta errealitate ekonomikora egokitu behar da ezinbestean eta jasagarria izan behar da denboran zehar. Guzti hau kontutan harturik OE-ren finantziakzioa erraza edo sinplea dela defendatzen duten pro-

posamenak baztertu behar dira eta gaur egun topa daitezkeen oztopo guztiak kontutan hartu behar dira, sinplekeriak edo bide zidorrak alde batera utziz.

Zalantza eta galdera hauei erantzuteko nahian azken urte hauetan bideragarritasun ekonomikoa zein teknikoa kontutan hartzen dituzten hainbat proposamen egin dira OE-ri buruz, bai nazioarte zein Estatu mailan. Batzuetan, proposamenak aberatsei ezarritako zergetan edota zerga berriak sortzean oinarritu dira —heredentziei jarritako zergak, zerga ekologikoak edota energia kontsumoari ezarritako zergak, adibidez-, baina gehienak gaur egun prestazio sozialak eta fiskalitatea batzearen aldekoak dira, zerga negatiboaren bidez hain zuzen ere. Horrela bada, fiskalitatea eta honi loturiko aspektu guztiak OE-ri buruzko eztabaidan ardatz nagusienetakoak dira.

Orain arte, leku gehienetan prestazio sozialak alde batetik eta fiskalitatea bestetik joan dira. Honek, sarritan egoera kontraesankorrak eta errenta gutxi dituzten pertsonen kontrako errealtateak sortu ditu. Estatu mailan adibidez, Errenta Aitorpenean (IRPF) ezarritako azken erreformek, adibidez, aberats eta pobreen arteko distantzia areagotu baino ez dute egin (Mercader, 2005: 8). Hau ematen da errenta altuak edo ertainak dituzten pertsonak direlako politika fiskaletaz onura gehien ateratzen dituztenak, gehien bat dedukzioetaz baliatzen direlako — etxebizitza erosteagatik, seme-alabak edukitzeagatik, lan erreteengatik, etab.-. Errenta gutxiko pertsonak, aldiz, aitorten fiskala askotan ez dutenez egiten, ez dituzte abantail fiskal hauek aprobetxatzen. Adibide bat jarriezkeroko dinamika hau askoz ere errazago ulertuko da. Gaur egun seme-alabak edukitzeagatik dauden diru-laguntzak bide fiskaletik zuzentzen dira, hots, dekuazioen bidez. Hau hola izanik, klase ertain eta altuek hauetaz gozatzen dituzte eta errenta aitortpena egiten ez duten klase bajeuek, aldiz, ez dute ezer jasotzen seme-alabak izateagatik. Honen aurrean, haurtzarorako OE bat ezarriko balitz, progresibotasuna areagotu egingo litzateke era nabarmen batean. Nahiz eta ume guztientzako OE izan, pobre zein aberatsen seme-alabentzako, lortuko liratekeen efektuak askoz ere justuagoak izango ziren, baldin eta gaur egun existitzen diren dedukzioak desagertuko balira eta haur guztientzako OE bermatuko balitz. Hau adibide bat baino ez da, baina argi azaltzen da sarritan fiskaltasunak nahiz eta teoria mailan progresibotasunean oinarritu, azkenean efektu erregresiboak gauzatzen dituela.

Horrela, egoera guztiz erregresiboak ematea ez da salbuespena izaten; hona hemen guztiz esanguratsuak diren beste zenbait adibide: dedukzioen bidez klase ertain eta altuentzako bideratzen diren diru kopuruak pentsio ez kontributibo eta prestazio asistentzialen hirukoitza da (Noguera, 2001-2002: 115-116); era berean, eta Jordi Sevillak egindako

estimazioen arabera, 1999. urtean dedukzioengatik Estatuak ez zituen jaso 3 billioi pezeta, pobreziaren aurka erabiltzen den dirua baino askoz ere gehiago, hain zuzen ere (Sevilla, 1999: 289).

Gaur egungo fiskalitateak erakusten duen erregresibotasunarekin jarraituz, tratamendu oso ezberdina izaten dute lan errentak eta kapitalen errentak, lehenenengoek orokorrean fiskaltasun handiagoa izaten dutelarik. Honenbestez, bere diru-sarrera handienak lan errenten bidez eskuratzen dituenak, gehienetan errenta gutxien dutenek alegia, zerga gehiago ordaindu behar dituzte —portzentualki—; eta euren diru-sarreak kapitalen errentetan oinarritzen dituztenek, aldiz, zerga gutxiago. Kapitalen errentak, akzioak, ondare ezberdinak, etab. direla jakinik argi dago errenta gutxi dituztenek fiskaltasun hobeago honetatik onura gutxi lortuko dituztela eta errenta handienak dituztenak aterako direla irabazle. Honela bada, gerta daiteke errentista batek langile batek baino diru gutxiago ordaintzea aitorten zergan, intuitiboki arraroa eman dezakeen adibidea baina errealtatean gerta daitekeena.

Efektu hauei aurre egiteko, OE-ren alde dauden batzuk zerga negatiboaren alde jo dute, Atkinson izan zelarik OE eta zerga negatiboa lotu egin zuen lehenetarikoa bere *Publics in Action: The Basic Income/Flat Tax Proposal* (Atkinson, 1995b) lan famatuan. Ekonomilari britainiar honen ustez zerga negatiboa ezartzen den gutxienerako diru kopurua OE baldin bada, lortzen den errentaren berbanaketa askoz ere justuagoa da (Atkinson, 2001). Proposamen gehienen arabera, prestazio sozialak eta fiskalitatea batu egin beharko ziren OE bezala jokatu lukeen gutxienerako exentu bat ezarriz. Era berean, aitorten errenta tipo bakarra ezarriko zen lan eta kapitalen errententzat, edo gutxienez bigarrenen tipoa igo beharko zen. Horrela bada, OE-k kasu hauetan mailegu fiskal —tax credit— baten forma hartuko luke EEBB-etako Earned Income Tax Credit edota Erresuma Batuko Working Tax Credit antzera. Azkeneko bi kasu hauetan zerga negatibo hau jasotzeak enplegu bat izatearen baldintza du, baina OE-ren kasuan unibertuala eta baldintzarik gabekoa izango zen. 2001. urtean, esaterako PSOE alderdiak mota honetako erreforma fiskala planteatu zuen (Oliver eta Spadaro, 2004), baina gobernuan dagoenetik aitorten errentan egin diren aldaketek ez dute bide hau jarraitu inondik inora.

Estatu mailan zerga negatiboari buruz egindako proposamen eza-gunenak Sanzo eta Pinillak egindakoak izan dira (Sanzo, 2001; Pinilla, 2002; Sanzo eta Pinilla, 2004). Bi egile hauek 360 eurotako hileroko OE planteatzen dute Estatu mailan pertsona batentzat, 540 bi pertsonentzako eta 110 euro gehiago 25 urteko baino gutxiago eta independizatuta ez dagoen bakoitzarentzat. Gastua BPG-aren % 2-a inguruan kokatuko litzatekelarik (Sanzo eta Pinilla, 2004; Pinilla eta Sanzo, 2004).

Sanzo eta Pinillaren ustetan hauteslegoaren % 70-a erreforma honen bidez irabazle gisa aterako litzateke % 42-ko tipo bakarra eta 8.841 euro-tako OE ezarriko balitz. Tipo bakar handia eman dezake, baina kontutan hartuta gutxieneko exentoa zein den, azkenean gehienek gaur egun pagatzen dutena —edo zenbait kasuetan gutxiago— pagatuko lukete. Era berean, proposamen hauek argi azaltzen dute mota honetako erreformen lan ildoak. Alde batetik, gehiengo bat irabazle modura aterako zen, hau ezinbesteko elementua izanik bideragarritasun sozialari buruz hitzegiten bada. Eta bestetik, gastu publikoa igo egingo zen, baina ez inoiz ere jasanezinak diren zifretara iritsiz, kasu gehienetan erreformaren kostua BPG-aren % 2-3-an kokatuko litzateke, zifra handiak bai baina ez ezinezkoak. Are gehiago, Estatu mailako gastu soziala Europear Bata-suneko batazbestekotik oso urruti kokatzen denean.

Planteamendu fiskal hauek erraztearen helburuarekin azken urte hauetan simulatzaile fiskal informatikoetara jotzen ari da sarritan maila makroekonomikoan izango litzatekeen ondorioak aurreikusi ahal izateko. Hauen artean, Estatu mailan, erabilienak EspaSim (Mercader, 2004) eta Gladhispania (Oliver eta Spadaro, 2004) dira. Kasu gehienetan gaur egun existitzen den presio fiskala handitu gabeko eszenatokiak planteatzen ari dira; errenta gutxienez dutenen egoera hobetzea dute helburu nagusia eta soilik errenta handienak dituztenek diru gehiago ordaintzea nahi da. Era berean, eredu hauek lan merkatuan sortu ditzazketen ondorio ezkorrak sahiestearren enplegurako pizgarriak aipatzen dituzte, gaur egun zenbait errenta minimoetan ematen den bezala, hain zuzen ere.

Proposamen ezberdin hauek aldagai makroekonomiko ezberdinen azterketa estatikoa egiten dute halaberrez, zaila delarik hauek errealitatean izan ditzazketen benetazko ondorioak aurreikustea. Hala ere, planteamendu guztiz beharrezkoak zein interesgarriak dira. Alde batetik, politika sozialak eta fiskaltasunaren arteko lotura bilatzen dutelako; eta bestetik, eredu bideragarriak izan daitezkelako maila sozial zein ekonomikoan. Dena den, aipatutako benetazko ondorioak zeintzuk izan daitezkeen ezagutu ahal izateko ezinbestekoa suertatzen da nola-baiteko eredu experimentalen bat ezartzea leku eta biztanleria zehatz batzuetan. Eta honetatik abiatuta, eta bertan sortzen diren norabideak ezagutuz eta aztertuz, OE sistema orokorragoa sortzeko aukerak zabaldu daitezke.

3.6. Oinarrizko Errentaren ideia-errepentua eta gaur eguna

OE-ri buruzko ezagutzari buruz esan beharreko lehenengo gauza oraindik ideia nahiko ezezaguna dela da. Maila akademikoa, zenbait sin-

dikatu, alderdi edota gizarte mugimendu alde batera utzita, asko eta asko dira gizartean OE gaur egun ezagutzen ez dutenak. Era berean, ideiarene garapena gehien bat lurralde garatuetan eman da, Europan eta gehiago zehaztuz Ertauropan eta Iparraldeko Europan. Izan ere, eztabaida hau guztiz lotuta agertzen da Ongizate Estatua eta politika sozialekin eta hauek garatuago daude zonalde hauetan. Horrela bada, 80. hamarkadaren zehar Holanda edota Danimarka bezalako Estatuetan OE-ri buruz eztabaidatzen hasiko da, gehien bat ezkerreko pentsalari eta alderdiek sustatutako ekimenak izango direlarik. Alemania, Irlanda edo Belgika bezalako lurraldeetan ere, OE-k bere lekua topatu du eztabaida politiko eta sozialaren barruan.

Pentsatu daitekeenez, Europako zenbait eremuetan OE-ri buruzko ideiak zabaldu eta planteatu badira, ez da harritzekoa gaur egun ere Europear Batasunaren barruan OE bat sortzeko proposatu diren eredu ezberdinak Estatu baten barruan eman daitezkeen aplikazioaren mugak gainditu asmoz. Testuinguru honetan, kokatzen dira adibidez Pioch (2000, 2002) edota Van Parijs-en ekarpenak. Azken honen arabera, Europear Batasunean energiaren kontsumoari ezarritako zerga baten bidez 300 eurotako OE ezarri beharko litzateke (Van Parijs, 2001b). Bide honetan ere, ezpimarragarria da León-go Asociación Renta Ciudadana delako elkarteak Europear Parlamentuak gai honen inguruan ezabaidatzeko sustatu eta erakunde honek onartu duen ekimena (*Diario de León*, 2006. urteko Abuztuak 3, 2-3 orr.).

Esandakoa esan ondoren, pentsa daiteke OE-ren inguruko eztabaida soilik Europa kontinentalean ematen dela, baina ez da horrela. EEBB-etan esaterako, OE-ren inguruko ideia asko landu egin da, gehien bat workfare ereduari aurre eginez, bai maila akademikoan (Handler, 2004) zein Boston Review (2000. urteko urriak-azaroak) edota Dissent (2005. urteko uda eta 2006. urteko negua) bezalako aldizkari ezberdinetan bultzatutako hika-miken bidez. Era berean, Clark-ek EEBB-etan OE ezartzeko proposamanaren arabera 1999. urtean adingabeok 3.500 dolar jaso beharko lukete urtero, helduak 8.667 eta 65 urtetik gorakoak 7.990 (Clark, 2002: 11). Mundu mailan ideia honen garapenerekin jarraitzeko, eta aurreko atal batean ikusi den bezala, esan beharra dago beste zenbait lurraldeetan eztabaida hau ez dagoela hain garatuta, baina hala ere gero eta gehiago hitzegiten da berari buruz, Hego Afrika, Argentina edota Brasil honako adibideak baino ez dira.

Estatu mailari dagokionez, OE-ri buruzko eztabaida gaur egun oraindik nahiko urria da. Hala ere, esan beharra dago 90. hamarkadaren bukaeratik eta azkeneko urte hauetan garapen nahiko garrantzitsua eman dela gai honen inguruan, OE lantzen duten artikulo eta lan ezberdinak gero eta sarriago topa daitezkelarik maila akademikoko esparru

zein maila orokorragea duten komunikabideetan. Nolabaiteko garapen hau ulertzeko, Oinarrizko Errenta Sarea —Red Renta Básica— izeneko elkartearen sorrera 2001. urtean aipatzekoa da; azken urte hauetan ekimen franko antolatu dituztelarik, kongresuak, hitzaldiak eta jardunaldiak besteak beste. 2004. urtean, adibidez, elkarte honek Basic Income European Network-en —BIEN— X. Kongresua antolatu zuen Barzelonako Kultur Forum-aren barruan. Ideiaren garapenean ere, lehen aipatutako PSOE-ren proposamenak ere eragin handia suposatu zuen, komunikabide ezberdinek OE-ri buruzko tratamendu bereziak landu zituztelarik. Maila politiko honetan ere, 2005. urteko maiatzak 20ean OE-ri buruzko lan-azpibatzerde bat osatzeko proposamena onartu egin zen Diputatuen Kongresuan. Hala ere, gaur egun ez da ia batere lanik egin azpibatzerde honetan. Beraz, laburbiluz, OE guztiz ezezaguna zen fase batetik oraindik maila orokor batean nahiko ezezaguna baina zenbait esparruetan gero eta entzunagoa den garai batera pasa dela esan daiteke.

Estatu barruan eztabaidarik landuenak Katalunya aldean ematen ari dira, Oinarrizko Errenta Sareko kide dezente kokatzen diren erkidego autonomoan hain zuzen ere. Pasquall Maragall-en gobernu hirukoitzak, esaterako, bere programan errenta minimoetatik OE-ra pasatzeko neurriak ezartzeko konpromezua hartu zuen. Gainontzeko erkidegoetan, eta akaso Euskadi izanik salbuespena, eztabaida nahiko urria eta antzia izan da. Euskadiren kasuan, Eskubide Sozialen Gutuna tramitatzeko Herri Ekimen Legegilea bultzatu zutenen artean ere OE-ri buruzko eztabaidak garrantzi handia izan zuen (Moreno, 2003) eta gaur egun ere zenbait erakunde, elkarte eta alderdietan gori-gorian dagoen gaia da. Horrela bada, 2006. urteko lehenengo hilabetetan Eusko Legebiltzarrak OE-ri buruz eztabaidatzeko lan-batzordea eratzeke erabakia hartu zuen (Moreno, 2006). Era beran, Katalunyan zein Euskadin jada OE ezartzeko proposamen konkretuak existitzen dira, ematen diren errenta minimoetatik abiatuta zehazki (Sanzo, 2001; Arcarons, Boso, Noguera eta Raventós, 2005).

3.7. Ematen al da edo eman al da inoiz Oinarrizko Errenta?

Galdera honi erantzun zehatz bat eman behar bazaio era azkar batean esan behar da historian zehar eta gaur egun ere ez dela mota honetako eredurik ezagutu. Hala ere, gehiago sakonduzkeroko antzerakotasunak erakusten dituzten zenbait eredu topa daitezke bai iraganaldian zein orainaldian. Aintzindarien artean askotan 1795. urtean Britainia Handiko Speenhamland-eko kondaduan ezarritako Txiroen Legearen

